

# GUaiXE.net



Irakurri, gozatu eta oparitu. **Etxarrin dago aukera**



Kultura >> 15

Alex Mariñelarenak Espainiako txapelketa **irabazteko aukerak ditu oraindik**. Azken proba **asteburuan** jokatu da



Kirolak >> 13

Astelehenean emakumeen kontrako indarkeria salatzen ari gara >>9

Mugitu!ko kideak epaiaren zain >>8

Euskara proba Olaztiko Larunblaiko guztiendako >>3

Nazabal, zortzigarrenez Nafarroako txapeldun >>11



Nestor Esteban, Itziar Claver, Haizea Ramirez de Alda eta Gorka Iriarte asteburuko egitarauaren aurkezpenean.

## Euskal Herri euskalduna aldarrikatuko dute >>3



## Babestutako Gizarte Enpleguaren alde >>5

**UEMA, euskarazko zerbitzu eske Parlamentuan**

Euskara dakiten liburuzain eta osasun langileak eskatu ditu >>7

**Lizarragan festak asteburuan** >>9

# ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

# LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Alumnioa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa  
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu  
Telf.: 948 468 559  
info@lehalsaventanas.com  
www.lehalsaventanas.com



## Magali

Euritakoaren gainean 5 hosto erori ziren lehen-goan. ZORIONAK eta muxu handi bet!!!



## Magali

ZORIONAK eta txokolata txurizko muxu erraldoiak nire partez. Asko maite zaitut!!!



## Alain

ZORIONAK Alain, muxu monton bat zu seigarren zorionetako egunien danon aldetik.



## ZORIONAK ALAIN!!!



Mª Pilar Lazkoz ZORIONAK amiñe gu boston partez. Muxu handi bet.



## Artzai Karasatorre Sureda

6 urte bete dituz!! Zorionak, per molts anys. Segi hain jator eta alai!! Maite zaitugu, etxekoek.



## Maia

Maia, maitea, ZORIONAK!! 7 urtetxo bete ttuzu, a ze kozkorra!! Izan zoriontsu.



Axio ZORIONAK pitxin zure lehenengo urtebetzean!! Muxu handi bat parte guztietatik.



## Ekhiñe

ZORIONAK sorgina!! Jada 2 urte beteko dituzula!! Muxu handi bat parte guztietatik.



## Jon Sarasola

ZORIONAK gure bihurritxo-ari!! Jadanik urte bat bete duzu. Muxu potolo bat Miren, aita ren eta amaren partez.

## azaroak

# 22-28

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

### Musika

**Garxot.** Azaroaren 23an, larunbatean, bazkariaren ondoren Iturmendin.

**Kinada+karaokea.** Azaroaren 23an, larunbatean, 23:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean. EHE.

**The pink rangers.** Azaroaren 24an, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean.

### Antzerkia

**Encantadas.** Azaroaren 22an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. **Oihulari klown.**

**Eskola ondoko jolasak.** Azaroaren 23an, larunbatean, 17:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **XXL ikuskizunak.**

**Far west.** Azaroaren 23an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Ylana konpainia.**

**Lotsagabeak.** Azaroaren 28an, ostegunean, 11:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. DBHko ikasleendako. **Gozamenez.**

### Txotxongiloak

**Cletaren ametsa.** Azaroaren 24an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Gus marionetas.**

### Dokumentalak

**Itsasoaren alaba.** Azaroaren 24an, igandean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean.

### Zinema

**Bestias del sur salvaje.** Azaroaren 22an, ostiralean, 21:45ean, azaroaren 24an, domekan, 20:00etan eta azaroaren 25ean, astelehenean, 12:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**La bicicleta verde.** Azaroaren 22an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren

24an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Herensugeak: haritzaren bihotza.** Azaroaren 24an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Filmazpit emakumea. Film laburren emanaldia.** Azaroaren 28an, ostegunean, 20:00etan Etxarri Aranazko Udaberri elkartearen Ondoren, tertulia, txokolata beroaz lagunduta.

### Mendi irteera

**Urepel.** Azaroaren 24an, domekan. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Txirindula irteerak

**Lezamengo sarioa.** Azaroaren 24an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:50ean Bioitza kanpinean. **Burundako mendi bizikleta taldea. 45 km.**

### Erakusketak

**Dekorazio arteak.** Azaroaren 29ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta, domeketan, 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Yolanda Arnedoren tailerra.**

### Hitzaldiak

**Mugak hezkuntzan.** Azaroaren 26an, asteartean, 16:30ean Altsasuko Txioa haur ikastolan. **Hizlaria: Jone Areta Urrestaratzu. Izena emateko 928 373023 edo txioa.haur.ikastola@inigoaritzu.com**

### Bestelakoak

**Gau erotikoa: zentzumen-ibilbidea+EROTIKLIK proiektzioa+dastatze beroa.** Azaroaren 22an, ostiralean, 22:00etan Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Gozamenez.**

**Andra Mari ikastolaren eraikin berriaren lehen harri-jartze ekitaldia.** Azaroaren 23an,

larunbatean, 11:00etan Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan biltzeko hitzordua.

**Eztanda Irratiaren 14. urteurrena.** Azaroaren 23an, larunbatean, 12:00etatik aurrera Iturmendin.

**Emakumeenganako indarkeria gaitzesteko adierazpena.** Azaroaren 25ean, astelehenean, 11:30ean, Altsasuko lortia kultur gune parean. **Ikasleak.**

### Deialdiak

**Euskaraz bizitzeari zigorrak ez!** Azaroaren 22an, ostiralean, 19:00etatik azaroaren 24ra, domeka, 24:00etara Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **EHE. Ikus 3. orriko albistea.**

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 22an, ostiralean, 20:00etan, Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Azaroaren 24an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Sakanako Langabetuen Asanblada.** Azaroaren 25ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

**Emakumeenganako indarkeria ezabatze nazioarteko eguna.** Azaroaren 25ean, astelehenean, 20:00etan Olatzagutiko San Migel plazan.

**Erasoen aurrean, Autodefentsa!** Azaroaren 25ean, astelehenean, 19:30ean Altsasuko udaletxe parean. **Altsasuko Feministak eta Bilgune Feminista.**

**Euskal Herriko gutun sozialaren aurkezpena.** Azaroaren 28an, ostegunean, 20:00etan Irurtzungo kultur etxean.

### Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era  
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM  
**beleixe** online  
www.guaixe.net

Piztu irratia!

## ASTEBURUKO AGENDA

**ASTEKO ERREPASOA:**  
albisteak, kirolak, EHEko kideak,  
Gorka Ovejero, Babestutako Gizarte  
Enplegua, altsasuarrak banderaz...

Esataria: Eneida

&gt;&gt; Altsasu

# Gure Etxea eraikinetik Euskal Herri euskalduna aldarrikatzen

Hala pasako dute larunbata eta domeka Itziar Claverrek eta Haizea Ramirez de Aldak. Baita etxe-ko atxilo-aldian elkartu nahi zaizkien guztiak. Bi altsasuarrek aste-buruan beteko dute epaitegiak ezarritako zigorra: bi eguneko etxe lokalizazio iraunkorra. Aurretik 6.000 euroko isuna ordaindua dute. Eraikin publikoan itxialdia eginez Euskal Herrian Euskarazko (EHE) bi kideek epaiari buelta eman nahi diote. Eta zigortuak izatera eman zituen arrazoia zabalteko bozgorailu izanen da: euskaraz bizitzeko nahia.

EHEk duela bi urte antolatutako Ezabatu eta euskaraz bizi! dinamikaren baitan identifikatu zituen Foruzaingoak Claver eta Ramirez de Alda. Ondoren etorri da epaia. Orduan bezala, gaur egun ere, bi altsasuarrek uste dute "Madriletik eta Parisetik eratorritako lege-

ek Euskal Herria eta euskaldunak azpiratzeko asmimilazio prozesuaren baitan" daudela. "Prozesu horren ondorioz, euskaldunon hizkuntza eskubideen ukazioa eta zapalketa etengabeak dira". EHEko kideek salatu dute eguneroan euskaldunok ezin dugula euskaraz bizi. "Administrazioen aurrean gure hizkuntzan aritzeko eskubidea administrazioek beraiek urratzen dute".

## Deia

Bi euskaltzaleek adierazi dute hizkuntza-paisaia arrotza dela euskaldunok bizi dugun zapalkuntzaren beste adierazleetako bat. "Ezabatu eta euskaraz bizi dinamika hura salatzea du helburu. Haren kontrako jazarpena agerikoa da. Azken urteetan hainbat isun eta zigor ezagutu ditugu".

Egoera berean dauden eta egon



Makina bat eragilek euren babesa azaldu diete Claverri eta Ramirez de Aldari.

diren guztiei babesa adierazi diete Claverrek eta Ramirez de Aldak. Aldi berean, gaineratu dute ez dituztela zigorrak onartzen eta euren jardunean berretsi eta eus-

kaltzaleei haiekin bat egiteko deia egin diete. "Euskaraz bizitzen segituko dugu. Ez gara espaloitik jaitziko. Euskaltzale konprometitu eta aktibo gisara erantzunen die-

## Egitaraua

- >> **Azaroak 22, ostirala**  
**19:00etan** Elkarretaratzea.  
**20:00etan** Pintxo-potea Gure Etxea eraikinean.  
**22:30ean** Izan egin eragin dokumentalaren proiektzioa.  
**00:00etan** Itxialdiaren hasiera.
- >> **Azaroak 23, larunbata**  
**Goizez** EHEren mintegia.  
**14:30ean** Bertso bazkaria.  
**18:30ean** Euskaraz bizitzeari zigorrak ez! Ezabatu eta euskaraz bizi! manifestazioa.  
**20:00etan** Pintxo-potea.  
**23:00etan** Kinadaren kontzertua eta ondoren karaokea.
- >> **Azaroak 24, igandea**  
**12:00etan** Photoshop tailerra.  
**17:00etan** Hitzaldia: desobedienciaziaz intsumisiorantz: bide bat. Hizlaria: Eneko Garaialde.  
**19:00etan** Elkarretaratzea.  
**00:00etan** Itxialdiaren akabera.  
 Asteburuan Gure Etxea eraikinean EHEren materiala erosteko aukera egonen da. Gainera, EHEren argazki eta bideoak ikusgai izanen dira, baita espaloitik ez jaitzeko konpromisoak hartzeko aukera ere. Barra txiki bat ere izanen da.

gu erasoei eta Euskal Herri euskalduna, euskaraz biziko den herri euskalduna eraikitzen segituko dugu".

## SAKANA

### Olatziko Larunblai programan izena emandako guztiek euskara proba egin beharko dute



Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Olatzagutian antolatzen duen Larunblai jardueran sartzeko irizpideak direla eta bi familia kexatu egin ziren. Nafarroako Arartekoak kasua aztertu ondoren, adierazi zuen zilegi dela parte-hartzaileei euskara maila egokia eskatzea, "egitasmoaren ezaugarri atxikitako eskakizuna baita" eta "horren menpe egon baitaiteke jardueraren arrakasta".

Arartekoaren iritziz, Larunblai jardueran parte hartzeko interesa dutenek euskara maila egokia dutela ziurtatzeko modurik egokiena, izena eman duten guztiei gaitasun proba bat egitea da. Iradokizuna bere egin zuen Mank-en Euskara Batzordeak astelehenean; eta Olatzagutiko Larunblai taldean izena eman duten guztiei gaitasun proba egitea onartu du, jarduerak eskatzen duen euskara maila dutela ziurtatu ahal izateko. Probaren data zehaztu bezain laster hari buruzko informazioa hurren gurasoei jakinaraziko diela iragarri du Mank-ek.

## SAKANA

### Bierrik fundazioak Euskaltzaindiaren Jagon jardunaldietan parte hartu zuen

Euskarak Nafarroan duen egoera aztertu zuten ostiralean. Hedabideen arloaz jardun zen Bierriko Ainhoa Urretagoiena

Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeak antolatutako, XVIII. Jagon Jardunaldiak egin ziren Iruñean ostiralean. Sagrario Aleman Sustapen batzordeko buruak esan bezala, "Nafarroan zertan ari garen, nora joan nahi dugun eta Nafarroatik zer ekarpen egiten ari garen eta egin dezakegun euskararen normalizazioan" aztertu zuten.

Bierrik fundazioko kudeatzaile Ainhoa Urretagoiena Arruaba-



Lasa, Belasko, Epaltza, Urretagoiena eta Torregrosa, jardunaldietan. UTZITAKOA

rrenak *Aurrera begira, Nafarroan euskara indarberritzeko zein hizkuntza politika?* izenburua zuen mahai inguruan parte hartu zuen hedabideen ikuspuntua emanaz. Harekin batera izan ziren Gari-

koitz Torregrosa, Sortzen-eko ordezkaria; Iñaki Lasa, Kontseilukoa eta Mikel Belasko, Nafarroako Ikastolen Elkartekoa.

Urretagoienak esan zuenez, "euskaltzaletasuna ez dago krisian, bai-

na fase edo ziklo aldaketa bat behar du". Bierriko kudeatzaileak gaineratu zuenez, "euskalgintzan lanean aritzen garenok beti egon gara krisian eta azken urteetan gure egoera larriagoa izan bada ere, jendearen babesaren laguntzarekin egin dugu aurrera, euskaltzaletasunarengatik, hain zuzen".

## Estrategia berriak

Urretagoienak "harrotasun pixka bat" faltan sumatu du euskalgintzan eta aurrerapausoak emateko beste eragileekin batera estrategia berriak pentsatzearen alde egin zuen. Hizkuntza politika berri baterako gutxienez hiru elementu zerrendatu zituen: aitortza eta hizkuntza berdintasuna; euskara sustatzeko diru-laguntza guztiak berreskuratu eta euskarazko irakaskuntza bermatu eta gizarte eragileekin elkarlan handiagoa.

**Datorren asteko Guaixean agertuko den kupoa moztu, hemen itsatsi eta Guaixeren bulegoan entregatu!**

**Erosketa-orga eder honen zozketan sartuko zara!!!**

Irabazlea, abenduaren 13ko 443. Guaixean argitaratuko da.

Izen-abizenak..... Telefonoa.....

**Gertu**  
Gertu Sakana S.C.

2.  
kupoa

1.  
kupoa

659 842 424 / 948 564 595 · Pilotajoko zeharbidea 11 · Altsasu  
edurne@gertusakana.com · www.gertusakana.com



## Non erabili

### FORD GABIRONDO

#### ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanetan.

### PATXI GALARZA

#### IRURTZUN

% 5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100€rengatik txistorra opari.

### JM AGIRRE

#### LAKUNTZA

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### DANTZALEKU TABERNA

#### ALTSASU

Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

### KAXETA

#### ETXARRI

% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.

### KATE INFORMATIKA

#### IRURTZUN

% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.

### BAIZA MOTOR

#### ETXARRI

Eskaintza bereziak.

### KALUXA TABERNA

#### URDIAIN

Menu edo plater konbinatuarekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan

### CITROËN SAN MIGUEL

#### ALTSASU

Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldaketetan % 20 deskontua.

www.guaixe.net-en zerranda osoa ikusgai



Zoila Berastegi

# AHT: errealitatea vs. fikzioa

Askotan esan ohi dugu errealitateak fikzioa gainditzen duela; eta egia da fikzioa sortzeko errealitatea behatzea baino gauza hoberik ez dagoela. Gure Herri honetan ere badugu horren berri. Eta oraingo honetan "errealitateak fikzioa zirudien" hirudibideekarrinahi konituzkegogora; telebistari begira zur eta lur geratu ginenekoa; "ez da posible", "ezin liteke" esanez. Izan ere, Euskal Herrian, ez da aldarrikapenik falta.

Nola ahaztu Sevillako atletismo

joko mundialetan Giraldilaz mozoraturiko hura, "Euskal Presoak Euskal Herrira" lelopean, aurkezlearekin dantzan, munduko kamara guztien aurrean... Eta hemen, etxean, irribarreak ahopean, emozioa bihotzean eta harridura non-nahi.

2013ko San Ferminak historia pasatuko dira 18 minutuko atzerapen hori dela eta, baina are gehiago, nafar askok geuretzat dugun ikurrin handi hura udalaxe pare-parean, luze bezain

zabal ikusteagatik. Pairatzen dugun sinbolo-debekuaren boomerang efektua eta arrantzale bizardunek itsasotik km batzuetara ere zeregina izan dezaketaren adibide.

Baina gaurko honetan bereziki tartalariak ekarri nahi ditut gogora. Ilea gominaz orraztu ondoren, trajeak soinean eta ziurrenik pulsoa mantentzeko lasaigarri edo infusioen bat hartu eta gero, merenge tarta Yolanda Barcinaren aurpegian txertatu zuteneko

hura. Izan ere, Mugitu-ri ez zaio imajinaziorik falta AHT-ren makroproiektua gelditzeko aldarrian. Marrazki bizidunetako irudi bat zirudienak, milaka bisita izan zituen youtuben, ez baikauden Barcina haingoxo ikustera ohi-tuak. Baina are sinesgaitzagoa da orain datorrena: tartazo bat ematearren 6 eta 9 urte bitarteko espetxe zigorrak eskatzea eta auzitegi nazionalen epaituak izatea. Ez zaidazue esan errealitateak ez duela fikzioa gainditzen! AHT-rik ez!

## barrutik kanpora

# Lehena, oraina eta geroa

### Lehena

Sakanak 5 urte daramatza krisian murgildurik. Eskualdearentzat une latzak izan ziren: Ufesa, Dinescon, Recindsa, Hishording Ispania, Gamesa, Arfe, Inasa... enpresen itxierak. 2.000 enplegu inguru suntsitu zituzten. Eskualdeak behar kada izugarria jasan zuen. Gure inguruan egoera gogorak genituen: familia asko inolako diru iturrik gabe. Askok lanpostu duin baten alde gogor borrokatzen ari ziren. Sakandarron animoa beharantz zihuan, inguru negatibo batean bizi ginen eta ez

genuen etorkizunik ikusten.

### Oraina

Azken 2 urte hauetan, Sakandarron jarrera aldatu da. Nahikoa? EZ, baina badirudi tunel bukaeran argi txikitxo bat ikusten dugula. Sakanako Krisi Mahatik hasita, Sakanako Garapen Agentziaren sorrera, gu geu Sakantzen Sarea, Sakanako Behatoki Sozio-Ekonomikoa eta honekin eskualdeko Plan Estrategikoa, Langabe-tuentzako prestakuntza programa eta abar. Aurreko astean, Radio Euskadiko Boulevard saioan elkarri ziketa bat izan genuen. Bertan, Bizkaiko Arratia bailara eta Saka-

naren adierazpenak entzun ahal izan ziren. Sakanak badu irtenbidea, argi eduki. Irtenbide hori gu geu gara, Sakandarrak.

### Geroa

Sakandarrok asko balio dugu. Euskal Herri arguztiek momenturen batean Sakanaren berri eduki dute. Baina gauza asko ditugu aldatzeko. Eskualde txiki bat gara, potentzialtasun handiarekin. Aukera berriak aztertu behar ditugu. Dagoeneko eskutan ditugun indarguneak indartu behar ditugu. Eta ahuleziak eta mehatxuak positiboki begiratu eta ondo aprobetxatzen jakin

beharra daukagu. Sakanak badu etorkizuna, baina gure eskutan dago, bakoitzaren eskutan, eta zertan lagundu dezakezu? Bate-tik, www.sakanagaratzen.com zintzilikatuta dauden Plan Estrategikoen materialak irakurri eta ekarpenak eginez. Bestetik, Sakantzen Sarean edota antolatzen dituen ekimenetan parte hartuz. Azkenik, buruan izan ditzakezun ideia edo proiektuez sakantzensarea@gmail.com emailera idatziz.

Eta mesedez, saiatu gaitzen mundu hau, Sakanako leiho txiki honetatik positiboki begiratzin. NEGATIBISMOAK suntsitu nahi gaitu, baina ez gaitzen utzi. Sakanak LEHENA izan, ORAINA du eta GEROA duelako.

Sakantzen Sarea

## hara zer dien

# Burunda mendebaldeko gizarte zerbitzuak sare sozialetan

Lastaila akaberatik Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak Twitterren eta Facebooken kontu bana du. Guztiongandik gertuago egoteko asmoz sortu ditugu.

Haien bidez Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin lotutako mota guztietako albisteak zabalteko asmoa dugu. Bai guk anto-

latu ditzakegun jarduerak, bai interes orokorrekoak izan daitezkeenak ere.

Pertsonengana iritsi nahi dugu; erabilgarri izan nahi dugu; egiten duguna ikus dadila nahi dugu. Gustatuko litzaiguke Twitterreko eta Facebookeko kontuak informazio erreferente bihurtzea.

Gure profiletan, esaterako Jai-busaren ordutegien, Gozamenez programako jardueren, gurasoendako antolatutako tailerren, diru-laguntzak, bainuetxe, eta bestelako berri emanen dugu.

Elkar ikusi nahi dugu. Zuek guri iradokizunak eta jardueraren proposamenak egitea, gu kontuan izateko gustuko litzaiguke. Dagoene-

ko Facebooken 428 gara. Twitterren 57.

Hona non opatu gaitzakezen: Twitter: @ssbaltsasu

Facebook: https://www.facebook.com/ssb.altsasu

**Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea**

# Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net  
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa  
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea  
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net  
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net  
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano  
ZUZENTZAILA: Oihana Zubeldia  
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net  
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net  
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea  
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995  
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**

**EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hezkuntza Politikako Salburordetza

## SAKANA

# Nafarroako aurrekontuetan Babestutako Gizarte Enplegua kontuan hartzeko eskatu dute

Sakanako udalek eta Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatean dauden Betelu, Lekunberri, Araitz, Larraun, Imotz eta Iza ibarrek egin dute eskaera. Guztien izenean Ainara Aiestaran Uharte Arakilgo zinegotziak salatu du azken hiru urteetan, aurten bereziki, Babestutako Gizarte Enplegurako (BGE) Ongizate Departamentuaren diru saila murriztu egin dela, “%85 gutxi gorabehera”. Guztiek ere, Nafarroako Gobernuaren utzikeria salatu dute, “udalei ez dagozkigun karga ekonomikoak gure gain hartzera behartzen gaituelako”. Historikoki egin duen moduan, Nafarroako Gobernuak BGE aurrekontuetan kontuan izan dezala eskatu zuten.

Aiestaranek gogora ekarri du aurten Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateek hainbat mobilizazio egin dituztela. Horretaz aparte, Nafarroako Gobernuari BGEri eragiten dion 6E/2013 Foru Agindua alda-

tzeko eskatu zioten. Sakanako hiru mankomunitateetan kezu dira arauan dagoen mugarekin: 1.000 biztanleko lurralde-esparruak kontuan izanda, 3 hilabeteko kontratazioa baimentzen du bakarrik”.

Agerraldian adierazienez, “irizpide horrek bereziki kaltetzen ditu Nafarroako landa eremuak. Izan ere, aurten lehenbiziko aldiz hartu da kontuan biztanle-kopurua diru-laguntza banatzeko irizpide gisa. Ez da hainbeste baloratu eskualdeek dituzten beharrak edota proiektuak egindako ibilbidea”.

## Babestutako Gizarte Enplegua & Zuzeneko Enplegu Aktiboa

Hiru aukera eskaintzen dizkio BGEk pertsonari: lanean aritzea, bere burua prestatzea eta prozesu horretan teknikarien laguntza izatea. Nafarroako Gobernuak, berriz, aurten Zuzeneko Enplegu Aktiboko kontratazioak bultzatu ditu. “Lan bat egiteko aukera eskaintzen du bakarrik. Eta soilik Gizarteratzeko Errenta jaso-



Ibarreko 3 mankomunitateko ordezkariak eman zuten prentsaurrekoa.

tzen duten pertsonak parte hartu dezakete. Hauda, pertsona batzuk horietatik kanpo gelditzen dira”.

Hori guztia BGEren kalterako dela adierazi dute udal ordezkariak. “Pertsona bati aldatzeko aukera eskaini nahi badiogu,

laguntza eta prestakuntza ezinbestekoak dira, eskaintzen duguna <gaurko ogia, biharko gosea> izan ez dadin”. “Agerraldian agertu diren udal hautetsi eta teknikariek nabarmendu dute BGEren aldeko apustua egin dutela eta ibilbide

luzea duela eskualdean: “gure auzotarrendako lan munduan sartzeko aukera handia delako. Apustu honek ahalegin ekonomiko handia eskatu digu udalei. Bermatu ez den arren, gure bailarako herritar askok erabili dute”.

## %13

Etxarri Aranatz aldeko Gizarte zerbitzuen Mankomunitateak Nafarroako Gobernuari eskatu dion dirulaguntzaren ehuneko hori besterik ez du jaso (120 hila-beterako kontratuak eskatu ziren eta gobernuak 20 eman zituen). %16 Irurtzungoak (180tik 25; mankomunitateen ekarpenarekin 33,2 izan dira) eta eskatutakoaren %20, berriz, Altsasukoak (144tik 29; 38,1). Joan den urtera arte Irurtzun aldeko Mankomunitatea BGE Nafarroako 10 proiektu handien artean zegoen. 2012an 7.a zen. Baldintza berriekin 38tik 22.a da.

	Laguntzen eta kontratazioen garapena Nafarroako Gobernuak					Etxarri Aranatz aurrekontua				Altsasu aurrekontua			
	Naf. Gob.	Mank	Guztira	Pertsonak		Naf. Gob.	Mank	Guztira	Pertsonak	Naf. Gob.	Mank	Guztira	Pertsonak
2010	7.200.000	197.444,48	15.581,43*	213.025,91	22	139.667,46	21.521,04	161.188,5	8	237.464,73	30.056,24	267.520,97	25
2011	6.000.000	168.042,71	13.449,3	181.492,01	18	121.841,64	19.940,34	141.781,98	6,91	193.475,46	26.883,38*	220.358,84	20
2012	3.800.000	127.761,94	20.376,91	148.138,85	18	82.221,65	15.305,76	97.527,41	4,84	109.510,26	22.283,50	131.793,76	15
2013	2.200.000	37.531,64	26.652,84	64.184,48	9	27.645,97	13.883,56	41.529,53	1,6	42.949,13	22.622,51	67.584,64	11
2014	2.200.000					?				?			

\* Iturraskari proiektuko dirua kanpo.

## Irurtzun

### Tona pasa elkartasun

Hori da 350 herritarren elkartasunaren emaitza. Irurtzungo Elikagai Bankuaren aldeko pilota jaialdia jokatu zen atzo eta antolatzaileak pozik daude irurtzundarren erantzunarekin. Biaizpe pilotalekua bete zutenek ekarritako jakiak biltzen nahikoa lan izan zuten 30 boluntarioek. Guztiak ere erantzunarekin pozik zeuden. Jasota-

ko elikagaiak herriko 60 familieren artean banatu zituzte.

Jaialdiari dagokionez, estraineakoan Abajo I.a eta II.ak Razkin I.a eta II.ari irabazi zieten. Estelarrean, Mikel Goñi-Gorriti, Ongay-Lasa III.ari nagusitu zitzaizkien. Ikuskizun handia eskaini zuten pilotariek eta ikusleek gozatu ederra hartu zuten.



Boluntarioak eta pilotariak ikusleen babesa eskertu zuten. UTZITAKOIA

ZERGATIK EZETZ ESAN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

ORAIN CITROËNEN, SEGURTASUN GEHIAGO, PREZIO HOBEAK.

www.citroen.es

#### SEGURTASUNA

LIKIDOEN MAILAREN KONTROLA DOAN

(BALAZTAK, ANTIKONGELANTEA, KRISTALGARBITZAILA ETA SERBODIREKZIOA)

**%30** DESKONTUA PASTILLETAN, DISKOETAN

ETA INDARGETZAILLETAN

(Aldaketarako piezetan bakarrik aplikatuko da deskontua).

#### DISTRIBUZIO KIT-A

GASOLINA		DIESELA	
CITROËN C4 1.4i 90cv	CITROËN C4 1.6i 110cv	CITROËN C4 2.0 HDi 138cv	CITROËN C4 1.6 HDi
215€	215€	290€	290€

Gainontzeko modeloetan, distribuzio kitean %30eko deskontua (eskulana ez dago barne).

#### GURPILAK

NEURRIA 175/65 R14 82T	79,00€	76,50€	74,00€
	MICHELIN	BRIDGESTONE	Continental

Bakoitzeko prezioa dena barne: gurpila, muntaia, orekatzea, balbula, ekotasa eta zergak. Gurpilen sailkapen energetikoari buruzko informazioa eska ezazu eta erabili gidatzeko baldintzen arabera egokia.

#### GAINONTZKO NEURRIETARAKO

**%70** EKO DESKONTUA 2. GURPILEAN

Salneurri ofizialen gaineko deskontua iragarritako marketan. Eskulana ez dago barne

PROMOZIOA 2013/10/15etik 2013/12/10 arte.



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

## » Etxarri Aranatz

## Konposta ongi egiteko bidea

Hotzari aurre eginez dozena bat herritarrek erantzun zioten udalaren gonbiteari eta Idoia Artieda eta Bixente Artieda entzunez konposta hobe nola egin ikasi zuten. Azalpen praktikoak eman ondoren arazoak identifikatuko dira eta konponbidea eman eta dauden zalantzak argitu zituzten irakasleek hainbat auzo-konpostagailu bisitatzen zuten bitartean.



Konpostagailura begira.

## Aholkuak

- Norberaren kontsumo ohiturei erreparatu eta etxean ahalik eta janari gutxien alferrik galtzeko edo egoera onean dagoen janaria konpostagailura bota beharrik ez izateko.
- Ogi lehorrak ardiak edo oiloak dituztenei eman, edo ogi birrindua egiteko aprobetxatu.

## Idea bat

Pertz marroia hustu eta gero, pertzaren ipurdian orbel pixka bat (2 cm inguru) jarri daiteke. Konpostagailura sukaldako papera botatzea baino hobea eta merkeagoa da.

## Zenbait aholku

1. Ez bota konpostatuko ez den hondakinik. Mank-en hiztegi laranja kontsultatu edo 900 730 450 telefonora hots egin.
2. Ez bota suko hautsik konpostagailura. Baratzean hobe.
3. Estrukturante gutxi botatzea hobe da.
4. Bota aurretik hondakinak txikitu. 4 cm-koa izan dadila handiena.
5. Urtean zehar konpostagailuaren beharrak aldatu egiten dira (hezetasuna, lehorra). Auzo-konpostagailuko oharrei segitu.
6. Etxetik estrukturantea izan daitezkeen materialak eramaten ditugulakoan izan (kortxoak, arrautza kaskalak, lore eta landare lehorra, fruitu lehorren kaskalak...).
7. Hondakinak botatzeko edo nahastu edo zulo bat egin, bota eta estalita utzi.
8. Normala da estrukturantez estalita ez egotea. Beti ez da beharrezkoa.
9. Pala eta aitzurra (edo sakakortxoak) erabili eta gero txukun utzi, hurrengoak tresnak ongi aurkitzeko.
10. Seinale ona da intsektuak aurkitzea.
11. Seinale ona da bero-bero jartzea.
12. Normala da euli txikiak aurkitzea.
13. Normala da arrain eta haragi hondakinak bota eta gero, bizpahiru egunez usain pixka bat botatzea.
14. Errefusa dira: sukaldako papera olio edo koipearekin, papera mukiekin, sukaldako papera urez bustita. Ez bota papeirik, are gutxiago tintadun papera.
15. Janarik zikindutako sukaldako papera bai bota daitekeela. Aurretik zatitu.
16. Auzo-konpostagailu sukaldako hondakin organikoendako da.

## » Iturmendi

## Eztandaren urteurren festa asteburuan

Iturmendiko irrati librean, Eztanda Irratiak (FM 107,7) 14 urte bete berri ditu eta urteurren ospatzeko festa antolatuko du Iturmendiko Gazte Asanbladak. Bihar izanen da ospakizuna.



## Egitaraua

- 12:00etan** Mural margotzea eta txistu-potoea.
- 14:00etan** Bazkaria eta kantaldia Gartxotekin.
- 18:00etan** Irrati zaharren erakusketa eta txokolatada.
- 18:30ean** Jolasak pilotalekuan.
- 20:00etan** EHEko kideekin elkartasun argazkia eta auzatea.
- 22:00etan** Afarria eta gero... karaokea eta dantzaldia Ximona Gaztetxean!!

## » Altsasu



## Umm... onddoak!

Altsasuko tabernen elkarteak, Xurru-tek, Onddo Astea antolatu du hirugarrenez Altsasan. Atzo hasi eta igandera bitartean onddo pintxo bikainak dastatzeko aukera egongo da Xurru-tek osatzen duten Arangoa, Gautxori, Koxka, Lurrazpi, Urtzi eta Xume tabernetan.

Taberna bakoitzak bere onddo pintxo prestatuko du eta 2 euroren truke pintxo bakoitza dastatzeko aukera izango da. Gainera, onddo pintxo horietakoren bat dastatzen dutenak zozketa batean sartuko dira. Osasuna edo Laboral Kutxa taldeen partida bana ikusteko bina sarrera bikoitz zozketatuko ditu Xurru-tek elkarteak eta baita ere Iortia Kultur gunean zinema ikusteko 10 sarrera bikoitza. Onddo astearen inguruan giroa sortuko da.

## »

## Pintxo solidarioak Kaixon eta Akelarren

Kaixo eta Akelarre tabernekin ANFAS fundazioarekin bat egin dute eta pintxo solidarioak eskainiko dituzte gaur, ostiralean, arratsaldean. Saltzen dituzten pintxo guztien zenbatekoa Anfas-i emanen diote.

ANFAS garapenezgaitasuna eta ezgaitasun intelektualaren duten pertsonen elkarte da. Nafarroan 1.300 pertsona atenditzen ditu, horietatik 722 haur eta gazte. Krisiaren eraginez pertsona horiek beharrezkoak dituzten zerbitzuengatik pagatu beharreko kuotek gora egin dute eta berez prekariora den egoera sostengaezina bihurtzen ari da. Diario de Navarra Fundazioak, "Bizitza autonomoak estimulatuz" kanpainaren bitartez ezgaitasunen bat duten haur eta gazteen errealitatea eta egunerokotasuna nola den ezagutarazi nahi dute, eta, bestetik, diru bilketa egin nahi dute, "bokatasolidarioa" ekimenaren bidez. Ekimenarekin bat egindute Kaixo eta Akelarre tabernekin saltzen dituzten pintxo guztien zenbatekoa ANFAS-era bideratuko dute.

## MOTZEAN

## Teknikoak pozik ibaiaren erantzunarekin

Euria gogoz egiten zuen bakoitzean Uharteko Arakilen ibaiak gainezka egiten zuen eta Iraitarako eta Aralar-ko santutegirako errepidea itxita gelditzen zen. Hala gertatu zen astelehen gauean, baina eguna argitzerrako ura bere bidean zegoen. Ibaiak ur emari gehiago izateko udalak lanen aurreneko fasea egin zuen agorrilean. Aste honetan ikusitakoarekin teknikariak pozik daude. "Ibaia beti aterako da. Lehen egunetan egoten zen bidea itxita. Orain bere bidera azkarrago bueltatzen da". Udan presa eta Zerradoako bidearen arteko ibai zatian bazterrak zabaldu eta inklinazioa eman zieten, ubeldeak ur kopuru handiagoa eraman zezan. Lan horiek bigarren zati batekin izanendute segida. Due-la bi urte Uharteko Arakilgo Udalak herritarrei inkesta pasa zien egin beharreko lanetan lehentasunak marka zitzaten eta ibaiarena izan zen aurrena. Lanak 237.536 euroko aurrekontua izan zuten. Nafarroako Gobernuak %70eko diru-laguntza eman zuen.

## Uharteko Arakilen egur lotea markatzeko boluntario bila

Uharteko Arakilgo Udalak baso aprobetxamendua saldu eginen du heldu den urtean. Baina saldu aurretik lotea osatzen dute zuhaitzak markatu beharra dago. Eta horretarako boluntarioak eskatu ditu udalak. Lan hori egiten duten uhartearrek trukean heldu den urteko etxeko surako egur lotea eskuratuko dute. Interesa dutenek udaletxean eman beharko dute izena, azaroaren 29a baino lehen.

## Etxarri Aranatzko Udalen lan-poltsa sortzeko prozesua martxan jarri du

Etxarri Aranatzko Udalen lan-poltsa sortzeko lan poltsa sortuko dut. Haren funtzioa etorkizunean, beharren arabera, behin behineko kontratazioak egitea izanen da. Interesatuak bete beharreko baldintzak dira adinez nagusi izatea, eskola ziurtagi-

ria edo baliokidea izatea, euskaraz ahoz (C1) eta idatziz (B1) aritzeko gaitasuna izatea eta B1 gida baime-naren jabe izatea.

Hilaren 26ra arteko epea dute udaletxean izena emateko. Instantzia osatu, nortasun agiriaren kopia eman eta merituak aurkeztu beharko dituzte. Euskara maila proba 28an egingen da eta azterketak teorikoak 30ean. Udaletxean, web orrian, [www.etxarriaranatz.com](http://www.etxarriaranatz.com), edo enplegu zerbitzua- ren bulegoan daude oinarriak.

## Bakaiku, egutegiko herria

Heldu den urtean egutegi berezia izanen da Bakaikuko etxe askotako sukaldetan. Herriko dozena bat argazkideen egutegi prestatzen hasi dira eta horretarako bakaikuarren laguntza eskatu dute. Hilabete bakoitzari egoki lotzen zaion argazki bana jarri nahi dute. Eta irudiak lortzeko bakaikuarrei laguntza eskatu diete. Hilabeteren bat ilustratzeko egokia den argazkiren bat duenak eta ekimenarekin parte hartu nahi duenak [bakaiku.egutegia@gmail.com](mailto:bakaiku.egutegia@gmail.com) e-postara bidali dezake. Argazkiak gaur egungoak edo aspaldikoak izan daitezke. Hilaren 25era arte dago epea. Jasotako argazkien arabera, aukeraketa prozesua zabalduko luketela iragarri dute antolatzaileek.

## Dibertigarria, Bateragarria eskaintza gazteendako

Ezgaitasuna duten 12 urtetik gorako gazteei zuzendutako eskaintza izanen da eguberrietan ere Altsasan. Intxostiapunta gazte gunean lagunekin jolastu, eta jarduera eta tailerretan parte hartzeko aukera izanen dute. Abenduaren 23, 24, 26, 27, 30 eta 31n eta ilbeltzaren 2, 3 eta 7rako izanen da eskaintza, 17:00etatik 20:00etara. Izena emateko 012 telefonora hots egin edo [www.altsasu.net](http://www.altsasu.net) web orrian sartu. 33 euro ordaindu beharko dira. Hobariak eskuratzeko aukera ere badago. Izen ematea hilaren 20tik 27ra izanen da zabalik.

## Haurrendako psikomotrizitate ikastaroa eskaini nahi da Etxarri

Bilera informatiboa deitu da astearteko, 18:30ean, Etxarriko Kultur Etxean

Etxarri Aranatzko Udalen lagundurik, 3, 4, 5 eta 6 urteko haurrendako psikomotrizitate ikastaro bat jarri nahi da Etxarri Aranatz. Ikastaroa aurkezteko bilera informatiboa egingo da asteartean, hilak 26, 18:30ean, Kultur Etxean. Ikastaroan 2007tik 2010era jaiotako haurrak har dezakete parte. Ilbeltzetik maiatzera bitartean gauzatuko da, astelehenero, 18:00etatik 19:30era, zehazteko dagoen tokian. Hilero 25 euroko kuota ordainduko da. Izena emateko Etxarri Aranatzko Udalerari jo behar da, abenduaren 13ra arte.

**MAPFRE ALTSASU**

Hobe lehorra bustita baino

ASEGURATUTA EZ EGON ARREN  
Eguna: Azaroak 26, asteartea  
Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara  
Lekua: Iortia plaza

Laguntzailea: GUARDIAN EXPRESS

Mapfrek euririk gabeko 20.000 km oparitzen dizkizu  
Euritarako haizetako lehorra: hobe ikusteko, segurtasun gehiago.

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM [jimazpr@mapfre.com](mailto:jimazpr@mapfre.com)  
San Juan 48 behekoa • ALTSASU • 948 563 354

**ZIORDIKO UDALA**

2. POLIGONOKO 845. LUR ZATIAREN XEHETASUN AZTERLANA. HASIERAKO ONESPENA

Ziordiko Udalak, 2013ko abuztuaren 22an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen katastroko 2. poligonoko 45. lur zatirako Flor Goicoechea Mendiak aurkeztu duen xehetasun azterlana.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraituz, espediten-tea jendaurrean egonen da hoguei egunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, interesdunek azter dezaten eta egoki iruditzen zaizkien alegazioak aurkez ditzaten.

Ziordian, 2013ko irailaren 2an.  
Alkatea: Jesús M. Arrese Galbete

**ZIORDIKO UDALA**

## SAKANA

# UEMAk euskara dakiten liburuzain eta osasun langileak eskatu ditu

Nafarroako Parlamentuan egindako agerraldian egin zuten eskaera horiastearrean Jon Abril eta Eneka Maizek, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) izenean. Osasun etxe eta liburutegietako zerbitzuak euskalduntzeko neurri zehatzak proposatu zituzten Nafarroako Parlamentuan. Abril eta Maiz-

zek gogora ekarri zuten Nafarroako "zonalde euskaldunean" administrazioak euskarazko zerbitzua eskaintzeko betebeharraduela. "Instituzio publikoek herritarren eskubideak urratzea larria da".

Osasun etxe eta liburutegien euskalduntzeko bidea elkarlanean egiteko borondatea ere agertu

zuten UEMAko ordezkariak. Bide horretan ASNABI Nafarroako liburuzainen elkarte eta OEE (Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak) parte hartzea eskatu zuten. UEMAko kideek orain arte egindako bilera eskaerak Nafarroako Gobernuaren erantzunik jaso ez dutela nabarmendu zuten.



Jon Abril eta Eneka Maiz, Coro Gainzarekin batera. UEMA

## Osasun arloa

UEMAko kideek salatu zuten osasun arloan eremu euskaldunean hizkuntza eskubideen urraketa etengabea dela eta Euskararen Legeak herritarri aitortzen dizkion eskubideak ez direla betetzen azaldu zuten. Horretarako Hizkuntza Eskubideen Behatokia jasotako makina bat kexaren testigantzak eman zituzten. UEMAtik ondorioztatu dute dauden hizkuntza profilekin ez dela bermatzen euskarazko komunikazioa. Langileen prestakuntzarako plan eta irizpide falta salatu zuten. Aurtengo plantilla organikoan jasoa dagoenez Irurtzango osasun etxean laudir hizkuntza profilik ez duten postuak: zuzendaria, erizaintzako

arduraduna, pediatra eta botikaria. Etxarri Aranazko osasun etxean, berriz, zuzendari, erizaintzako arduradun eta jagole postuek ez dute hizkuntza profilik. Altsasun, azkenik, zuzendaria eta erizaintzako arduradun karguek ez dute hizkuntza profilik. Hiru osasun eskualdeetan plantillako langile guztiek V1 profila dute, baina hori ez dute langile guztiek. Eremu euskalduneko Emakumeen Arretarako Zentroen lanpostuak betetzeko euskaraz egutzaririk ez dute eskatzen erabarmendu zuten.

### UEMAren proposamenak

- Eremu euskalduneko osasun etxeetako eskakizun elebiduna ez duten lanpostuei eskakizun elebiduna jartzea. Lehentasuna duten lanpostuak dira: pediatrak,

medikuak eta jendaurrean lan egiten duten langileak

- Eremu euskalduneko emakumeen Arretarako Zentroetako lanpostuei plantilla organikoan eskakizun elebiduna jartzea.

- V1 jakite maila eskasa dela ikusirik, lanpostu horietan V3 jakite maila eskatzea.

- Euskarazko plazen ordezkotetan langile elebidunak egon daitezela bermatzea.

- Gainerako arloetan, urratsak ematen hasia: paisaia linguistikoa, informazio-orriak, mamografiako zitazioak, mamografiako txostenak, erradiografia zerbitzuko inkestak, hitzorduak jartzeko SMS-mezuak, baja-agiriak...

- Urgentziatzeko Zerbitzuetako langileen hizkuntza profilak zehaztea.

## Liburutegien zerbitzua

Eremu euskaldunean dauden Nafarroako Liburutegi Sareko liburutegietako liburuzainen plantilla organikoan plaza bakar batek ere ez du profil elebidun (tartean Irurtzun, Etxarri, Altsasu eta Olatzagutia). Bai Hizkuntza Eskubideen Behatokia eta Nafarroako Arartekoak urteetan nafarrek eta udalek salatutako hainbat eskubide urraketa testigantza jaso dute. Azken erakunde horrek euskararen erabilerasustatzeko araudi orokor bategia eskatu zion Nafarroako Gobernuari, gaur egun euskarazko zerbitzurik bermatzen ez delako.

### UEMAren proposamenak

- Eremu euskalduneko profil elebiduna ez duten lanpostuei pro-

fil elebiduna jartzea.

- Profil hori C1 mailakoa izatea.
- Dagoeneko lanpostu finkoa duten liburuzainen kasuan, horiendako euskalduntze plan bat diseinatzea.
- Eremu mistoko zenbait lanposturi profil elebiduna paratzea; batez ere, liburuzain bat baino gehiago dauden liburutegietan.
- Plaza elebidunen ordezkotetan langile elebidunak bermatzea.
- Liburuzain guztiei, oro har, euskara ikasteko erraztasunak ematea.
- Nafarroako Gobernuak Liburutegien Sareko udalekin eginak dauzkan hitzarmenetan hizkuntzaren erabilerrari buruzko irizpideak ezartzea: liburu eta materialak hornitzea, paisaia linguistikoa, informazio-orriak, aplikazio informatikoa...

## Euskal Herriko eskubide sozialen kartaren aurkezpenetan parte hartzeko gonbitea

Gutun horretan langile-klasearen eta herritar-sektore zabalaren (gazte, adineko, emakume, migrante, maila funtzional ezberdineko pertsonak...) helburu eta aldarrikapen sentituenak jasoko ditu. "Eraso kapitalistari erantzun eta eskubideen defentsa eta hedapenean aurrera egiteko" bitarteko bat izan nahi du Euskal Herriko eskubide sozialen kartak.

Euskal Herriko Mugimendu

Sozial eta Sindikalen lehen Asanbladak sustatzen du aipatutako gutuna. Gobernuak hartzen dituzten erabakiak salatu dituzten eragileak elkartu dira idatzia sustatzeko. Modu parte-hartzailean idatzi nahi dute karta, "eredu sozioekonomiko berri baten oinarriak ezartzeko, guztioi bermatzeko Euskal Herriko baliabideetan eta sortzen den aberastasunean parte izateko bidezko aukera".

Sakanako eragile eta sindikal ugari elkartu dira prozesuari euren ekarpena egiteko asmoz. "Gure helburua eskualdean ahalik eta jende gehienaren ekarpena jasotzea da". Horregatik, hilaren 14ra arte Sakanako makina bat herritar gutunaren aurkezpen saioak egingen dira eta haietan parte hartzeko gonbitea luzatu dute. Abenduaren 15ean Bilbon Nazio Batzarra egingen da.



Gure Etxean egindako batzarra.

## Lotutako hitzorduak

**Azaroaren 28an**, ostegunean, 20:00etan Irurtzango kultur etxean.

**Azaroaren 29an**, ostiralean, 18:00etan Lakuntzako udal etxean.

**Abenduaren 6an**, ostiralean, 18:00etan Arbizuko udal etxean.

**Abenduaren 11n**, asteazkenean, 20:00etan Uharteko Arakilgo udal etxean.

**Abenduaren 12an**, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

**maría eugenia**  
Arrainak  
www.pescaderiamariaeugenia.com  
Arratsalde zabalik

**Parte hartu**  
**3 bisiguren zozketa**  
Zozketa eguna: azaroaren 29a.

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722  
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725

**Arbizu**  
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com  
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

## SAKANA

# Tartalariak epaiaren zain



Arbazuarrari akusazio partikularrak zigor eskaera jaitzi zion.

Astlehenean Espainiako Auzitegi nazionalen auzipetu zituzten Mugitu! Mugimenduko Gorka Ovejero arruazuarra, Julio Villanueva, Ibon Garcia eta Mikel Alvarez, ustez 2011. urteko urriaren 27an Okzitaniako Tolosan, Pirinio-etako Lan Elkartearen osoko bilkuran Nafarroako presidente Yolanda Barcinari hiru tarta bota izanagatik.

Akusatuak ukatu egin zuten Okzitaniako Tolosan egun horretan egon zirenik. Fiskaltzak 5 urteko espetxe zigor eskaerari eutsi zion. Akusazio partikularrak, Barcinak, eskaera 5 eta 6,3 urtera jaitzi zuen. Defentsak absoluzioa eskatu zuen. Jende asko joan zen Madrilera auzipetuei babesa ematera. Baita larunbatean Iruñera, manifestaziora.

gertutik >>

**Gorka Ovejero Ganboa**

**Mugitu! Mugimenduko kidea**

**Indartsu joan zineten Madrilera?**

Bai, larunbatean manifestazioa poliki atera zen. Jende asko eta elkartasun adierazpen pilo bat egon ziren. Eta Madrilen bertako madrildarren Ecologistas en acción eta ezkertiarrekin bildu ginen. Laguntza handia izan dugu.

**Jende asko harrituta utzi zuen defentsa ildoak.**

Mugitu! Mugimendutik ez da ukatu ekintza egiletza. Gainera, legitimoa eta bidezkoa zela aipatu dugu. Orain esatea bertan ez ginela izan... Baina instrukzioaldian zein probak aurkezten zizuten ikusita, beste behin ere epaiketa fartsa baten aurrean geundela argi genuen. Gure neurriak hartu genituen.

Ez fiskalak ez akusazio partikularrak ez dute benetan ikerketa

sendo eta sakon bat egin. Epaiketa batetara ezin zara joan, foruzainak esaten zuen bezala, "Gorka eta Julio aspalditik eza gutzen ditugu eta ezagutu genituen". Ez dituzte proba antropometrikoak egin, ez errekonozimendu saio bat egin. Gainera, Tolosan egon ziren lekukoetako bat ere ez zuten galdekatu, Barcina eta bere eskoltak izan ezik. Baina Barcinak ez gintuen ikusi eta eskolta bat kanpoan zegoen eta bestea berehala Barcinarengana joan zen, bideoan argi ikusi daitekeenez, inori begiratu gabe. Horregatik, gertatutakoaren egiletza ukatu genuen. Dena den, gure benetako arrazoi sendoak beste batzuk izan ziren. Dagoeneko Tolosan ikertua eta itxia dago auzia, eta, hortaz, Espainiak gu epaitzeko erabili duen bostere judizialeko lege organikoa urratu du. Han argi eta garbi esan da soilik Auzitegi Nazionalak kasu baten ikerketa har dezakeela baldin eta ikerketa hori ez bada egindako tokian egiten. Eta kasu honetan auzia Frantzian ikertu, pertse-

gitu eta itxi zen. Hortaz, benetan lege urraketa egon da.

**Defentsa ildo ausarta.**

Beno, genuen bakarra. Bestea zen gu izan ginela esatea, desobediencia ez dela delitua aldarrikatzea eta tartalariak aurrera! Esatea. Baina horrekin zuzenean kadaltsora joango gineteke.

**Orain zer?**

15 egunetik aurrera epaia atera daiteke. Hiru aste, hilabete bat... ez dugu uste askoz ere gehiago luzatuko denik. Ez gaude oso baikor. Azkenean bakoitzak bere lana egin zuen. Gure defentsak argi eta garbi esan zuen proba gutxi daukela edo bat ere ez sendoa, gertatutakoak jada epaituak izan direla eta aplikatzen duten legea urratu egin dutela, lege hori aplikatzeko baldintzak bete ez zirelako. Baina fiskalak garbi esan zuen Barcina Tolosan Espainiaren ordezkaria zela eta guk Espainiako instituzioen kontra jo genuela. Zaila ikusten dugu Madril batean gu absolbitzea, ezer gabe joatea.

## Lakuntza

# Bakerako bidean indarkeria guztien aitortza eskatu zen Arregi gogoratzean

Mikel Arregi gogoan izan zuten larunbatean Lakuntzan. Akabera-ko ekitalidan Rafael Pellejero zinegotziak eta Amaia Izko Sortuko kideak hitz egin zuten. Lehenak Mikel Arregi bake gizona zela eta bere herriarekin konprometitua zegoela esan zuen. Garai berriak kontuan hartuta, adierazi zuen bakea ez dela bat etortzen gorroto eta mendekuekin, minarekin eta gaineratutako sufrimenduekin. "Bakeak egiaren aitortza eskatzen du. Baita gure aldarrikapen justuena ere". Bakea eskuzabaltasunez irabazten dela nabarmendu zuen, eta gogora ekarri zuen Arregiren eta gerra zibilean Nafarroan erail-

dakoen senideek izandako eskuza-baltasuna. "Hark amesten zuen Euskal Herri libre eta justua lortzea da gure erronka".

Izkok nabarmendu zuenez, "indar politiko jakin batzuek iraintzen jarraitzen duten estatu indarkeriaren ehunka biktimetako bat da Mikel Arregi". Sortuko kideak gaineratu zuenez, "alde guztiek erabilitako indarkeriak ondorio larriak utzi ditu Euskal Herrian, bakearen eraikuntzaren apustua- ren testuinguruan landu behar direnak". Indar politiko ezberdinei eskatu zion autokritika. Hura era kolektiboan egin behar dela adierazi zuen, ardura politikoa



Amaia Izkok Arregiren senideei oroigarria bat eman zien akaberan.

dutelako "indarkeria erabili, partekatu edo babestu izanagatik". Helburua "egiaren ezagutza, gertatutako ez errepikatzeko berme gisa". Izkok bukatzeko esan zuen:

"Estatuak indarkeriaren erabilpen politikoa egiten jarraitzen duen bitartean soilik ezker abertzaleari autokritikak exijitzea, bakearen etsaia indartzea baino ez dakar".

## Altsasu

# Altsasuar talde batek Espainiako banderaren inposizioa salatatu du

Ostegunaz geroztik Espainiako bandera Altsasuko udaletxean dago. Hainbat altsasuarrez osatutako talde batek emandako prentsaurrekoan adierazi zuten bandera hura "espainiar inperioaren sistema <demokratikoaren> isla" izanen dela. Gaineratu zuten, "Marca España-ren inposizioaren parte baino ez da, non espainiar ikurraren bidez, edozein mugimendu independentista blokeatu nahi duten".

Espainiako banderaren inposaketaren atzetik beste batzuk bada- tozela nabarmendu zuten. Eta adibide gisa, besteak beste, hizkuntza



"Guk gure ikurrak aldarrikatzen ditugu, gure hizkuntzan eta sinboloetan oinarrituta".

edo Wert Legea jarri zituzten, "hez- kuntza sistema zein ikasle guztiak espainolizatzen lagunduko duena".

Altsasuar talde horrek adierazi zuenez, "Marca España-k arlo guz- tietako murrizketak dakartza eta

## PPren eskaera

Espainiak bandera urratua ager- tudela eta "erasoa" salatatu du Fran- cesc Parisek. Popularrak Bilduri leporatu dio "gure nazioaren sin- boloei iraina diren halako bandal- ismo akto hauek onartzea".

sistema publikoa suntsitu nahi du". Gaineratu zuten aipatu markaren atzean "ustelkeria, langabezia, inpo- satzeak eta abar baino ez daude".

Altsasuarrek gaineratu zute- nez, "Nafarroan sinbolo espainiar- rrek inposatzen dizkiguten bitar- tean, gureak defendatzeagatik krimi- nalizatu eta kondenatzen gaituzte, sinbologia frankistaz betetako eraikin, estatua, ikur eta hainbat sinboloen daudenean".

## Olatzagutia

# PSNko laugarrenak uko egin dio

Olatzagutiko Udala heldu den aste- an eginen den bilkuran zinegotzi sozialisten uko egiteaz jakitun izan- nen da ofizialki eta PSNren hiru aulkiak hutsik geldituko dira. Alder- diak berak baieztatu digunez, hau- teskunde zerrendan laugarren hau- tagaia zen Maria Teresa Caro Gome- zek uko egin dio zinegotzi kargua harteari.

PSN egoera lehenbailehen normal- tzeke lanean ari da. Zerrendan bos- garren hautagaia Juan Antonio Iri- sarri Ona da. Lizarrako Uribe Perez Soria eta Castejongo Francisco Javier Sanz Carramiñana dira segidan dato- zenak zerrendan. Araceli Uriz Jana- rizek eta Jesus Bayon Modinok (Iruñea) osatu zuten sozialisten Ola- tzagutiko zerrenda.

## Bakaiku

# Nafarroako konkistari buruzko murala ezabatu izana salatatu dute

Joan den urtean Gaztelak Nafarroa konkistatu zuela 500 urte bete zire- la eta, gertaera hura oroitzeko auto- bia azpiko zubiaren ondoan mura- la (3m x 20m) margotu zuten maki- na bat bakaikuarrek. Joan den urteko abenduaren 29an hartu zituzten margotzeko beharrezkoak eta Cesar Orozkomikilariaren kon- kista, anexioa, eransketa eta oroi- penari buruzko zinta bat margotu zuten. Aurreko astean murala txu- riz margotu zutela salatatu du Baka- iku Bizirik eta gaineratu du "501 urte eta gero inkisizioa eta zentsu- ra bizirik daude gure Nafarroan".



## SAKANA

# Astelehena, emakumeen kontrako indarkeria salatzen eguna

Emakumeen aurkako indarkeriaren ezabapenerako nazioarteko eguna dela eta salaketa kalera aterako da astelehenean Etxarri Aranatzen, Altsasun eta Olatzagutian. Gainera, indarkeria egoera horri erantzuna mugimendu feministak bakarrik ez, gizarte osoak erantzun behar duela ohartarazi dute.

**Emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean: tokiko berdintasun politikak.** Lelo hori du genero indarkeriaren kontra Altsasuko Udalak atera duen kartelak. Udaletatik prestakuntza, genero indarkeriaren errefusua, emakumeak ikustarazten, sentsibilizazioa eta tokiko genero jokabide egokiak sustatzen



Genero indarkeriaren kontrako kontzentrazioak egingen dira astelehenean.

lan egiten dutela aldarrikatu dute.

Udalak herritarrak animatu ditu indarkeriaren kontrako ekitaldietan parte har dezaten, emaku-

meen arazoa ez ezik, denon arazoa baita, eta indarkeria jasaten duten emakumei eman beharreko laguntza denon konpromisoa delako.

## Altsasun antolatutakoak

Altsasuko Udalak, Emakumeen Bilgunearen eta Iortia Kultur Gunearen bidez antolatuta, makina bat ekitaldi izango dira emakumeen aurkako indarkeriaren ezabapenerako nazioarteko egunaren inguruan. Batetik, atzo despeditu zen Cristina Lizarragak Altsasun eskainitako autodefentsa ikastaroa. Bestetik, gaur, ostiralean, 22:15ean,

eta etzi, igandean, 20:00etan, Iortia Kultur Gunean *La bicicleta verde* filma emanen da.

## Ikasleen manifestua

Astelehenean ikastetxeetako ikasleak *La bicicleta verde* filma ikustera joango dira Iortia Kultur Gunean, 12:00etan. 11:30ean, indarkeria gaitzesteko manifestua irakurriko dute Iortia plazan. Indarkeriagatik eraildako emakumeen izenak aipatuko dira.

## Asteleheneko elkarretaratzeak

Etxarri Aranazko plazan 19:00etan izanen da hitzordua, Bilgune Feministak deituta, Erasoaren aurrean, autodefentsa! lelopean. Altsasuko Feministak eta Bilgune Femi-

nistak deituta, 19:30ean burutuko dute elkarretaratzea Altsasun, udaletxe parean, lelo berdinarekin. Aldiz, Olatzin 20:00etarako jarri dute hitzordua, Olatzagutiko San Migel plazan, emakumeenganako indarkeria ezabatzen nazioarteko egunaren harian.

## Altsasu

# Lanbide Heziketan mendi ertaineko kirol-technikari ikasketak egiteko izen ematea zabalik

**Ikasturte honetan ikasi ahalko da Altsasun. Sarrera probarako izena eman beharko da**

Altsasun dagoen Sakana Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratu Publikoak maila ertaineko prestakuntza ziklo berria eskainiko du: mendi ertaineko kirol-technikaria. Erregimen bereziko gradu ertaineko kirol-ikasketarako sarrera proban izena eman beharko da lehen-lehenik. Horrela mendi ertaineko kirol-technikari titulazio ofizialerako bidea hartuko da.

Ikasketak horrek mendi-kirol jardueretako hastapeneko begirale izateko balioko du. Gradu ertaineko titulazioak ikastetxe, klub, federazio edota enpresetan lan egiteko aukera ematen du. Ikasketetan sakondu nahi duenak goi mailako ikasketak egin ditzake.

## Izen ematea

Azaroaren 26tik 28ra egin daiteke, 8:00etatik 15:00etara, LH institutu bertan. Aurkeztu beharrezko instantziak ikastetxean bertan edo

## Sakana LH IIPko eskaintza

Aipatutakoaz aparte, honako ikasketak egin daitezke: motoren mekaniko laguntzailea (DBH gaitziditu ez duten ikasleei zuzendutako hasierako prestakuntza profesionaleko programa); mantenu elektromekanikoa (gradu ertaina); sodadura eta galdaragintza (gradu ertaina) eta mekatronika industrial (goi gradu).



Onartuak izan direnak sarrera proba abenduaren 12an izanen dute.

www.educación.navarra.es web gunean lortu daitezke. Eskaera orriarekin batera, nortasun agiria-ren kopia eta DBH egin izana adie-

razten duen tituluaren fotokopia (edo ikasketa baliokidea) edo gradu ertainetara sartzeko proba gainditu izanarena aurkeztu behar dira.

## SAKANA

## Andra Mari ikastolako eraikin berria abiapuntuan

**Bihar, 11:30 aldera, lehen harria jarriko da**

Andra Mari ikastolako hezkuntza komunitatearendako larunbata egun handia izanen da. Utzubar-Txiki dermioan eraikitzekoa den eraikin berriaren lehen harria jartzeko ekitaldia egingen dute bihar. Hara bilduko dira familia, langile eta ikasleak, baita, ziurrenik, ikas-

## Egitaraua

**11:00etan** Ikastolatik atera Utzubar-txikirantz, trikitilariak lagunduta. Utzubar-txiki: Lehendakariaren agurra. Bertsolariak. Ikastolako lehendakariaren hitzak. Etxarriko alkatea edota Udaleko ordazkariaren hitzak. Kutxaren lurperatze ekitaldia. Dantzariak. Kalejiran buelta herrira  
**13:00etan** Auzatea Etxarriko plazan (euria egingo balu frontoian)

tolatik pasatuko beste hainbat pertsona ere.

## Lizarraga

## San Klemente papa elurra tipi tapa!

**Asteburuan Lizarragako festak ospatuko dira, mendiak txuri direla**

San Klemente papa, elurra tipi tapa dio esaera zaharrak eta aurten bai, aurten bete da aintzinako esaera. Lizarragarrek hotzari eta elurrari aurre egiteko ekitaldi politik antolatu dituzte asteburu guztian barna eta bertara gerturatzeko ez da aitzakiarik izanen.

## Egitaraua

**>> Azaruek 22, ostia**  
**21:00etan** Gazte poteoa.  
**22:00etan** Gazte afaye.

**>> Azaruek 23, launbeta. San Klemente eguna**  
**11:00etan** Kalejire Amalur taldearekin.  
**11:30etik 13:30era** Haur jolasak.  
**13:00etan** Meza nausiye.  
**14:00etan** Auzatie.  
**16:30etik 19:30era** Haur jolasak.  
**19:30ean** Txokolatada.  
**20:00etatik 22:00etara** Joselu Anaiak.  
**21:00etan** Zezensuzkoa.  
**22:00etan** Herriko afaye frontonien.  
**24:30ean** Joselu Anaiak.

## >> Azaruek 24, iyendie

**11:00etatik 14:00etara** Puzgarriyek haurrendako.  
**12:00etan** Kalejire Amalur taldearekin.  
**13:00etan** Meza nagusiye.  
**14:00etan** Auzatie eta zaharren omenaldiye Herriko Etxen.  
**17:00etan** Nesken Pala Txapelketa: Irantzu Lasa-Amair Dominguez / Yune Atxa-Elorri Goena  
Elai Gomez-Irati Igoo / Oihane Erdozia-Narrea Lasa  
Andrea Ansotegi-Izar Parot / Ane Eskala-Uxue Mendinueta  
Janira Aristorena-Irati Lasa / Olaia Eizagirre-Saioa Aristorena  
**18:30ean** Briska eta mus txapelketa.

**Sorgiñak**  
taberna  
  
**LAKUNTZA**  
948 576 357

**xapatero**  
taberna  
948 460 162  
Etxarri-Aranatz

Iturgintza  
Berogintza  
eta Gasak  
  
**PEIO**  
659 286 344

**BUJANDA**  
okindegia  
  
Tel.: 948 467 503  
Kale Nagusia 31, OLAZTI

Altsasuko  
**IÑIGO ARITZA IKASTOLAK**  
irakasle bat behar du  
  
IÑIGO ARITZA IKASTOLA  
DBHko titulazioarekin (letrak) eta  
LHko titulazioarekin.  
(EGA eta CAPa derrigorrezkoak)  
Currikulumak, ikastola@inigoarizta.com  
helbidera bidali azaroaren 25eko  
eguerdia baino lehen.



## GIMNASIA ERRITMIKOA

**ISKIZA SAKANA, BRONTZEZKOA:** Eibarko San Andres Torneoan estatuko 17 komunita-  
tetik etorritako taldeak aritu ziren. Kimuen

maila absolutuan Iskiza Sakana taldeko nes-  
kek brontzeko domina kolokatu zuten. As-  
teburuan Espainiako Txapelketa dute jokoan.

## Pala

Neskek palan  
Lizarragan

igandean, 17:00etan, pilotalekuan

Lizarragako San Klemente feste-  
tan nesken pala txapelketa anto-  
latu dute igandean, 17:00etatik  
aurrera. Neskek palan maila bikai-  
na dutela eta Etxarri Aranazko Nes-  
ken Pala Eskolak egiten duen lan  
bikaina ezagutarazi nahi dira eki-  
taldiarekin. Txikietatik hasita hel-  
duetara, lau pala partida ederret-  
az gozatzeko aukera izango da.  
Bestalde, asteburuan Sakanako  
Nesken VIII. Pala Txapelketako 4.  
jardunaldia jokatu da astebu-  
ruan Etxarri Aranatzen.

Nesken Pala  
Txapelketa Lizarragan

Irantzu Lasa-Amairu Domingez  
/ June Atxa-Elorri Goena  
Elai Gomez-Irati Igoa / Oihane  
Erdozia-Narrea Lasa  
Andrea Ansotegi-Izar Parot /  
Ane Eskala-Uxue Mendinueta  
Janira Aristorena-Irati Lasa/Olaia  
Eizagirre-Saioa Aristorena

Sakanako Nesken  
Pala txapelketako  
4. jardunaldia

**Gaur, Etxarri Aranatzen**

**Kimuak:**

Elorri-Saioa / Ane-June  
Uxue-Narrea O. / Maitena-Elai  
Atsedena: Narrea-Irantzu

**Haurrak:**

Dinora-Ainhoa / Amairu-Narrea  
L.

Aroa-Oihane / Maddalen-Nahia

**Kadeteak:**

Maddi-Amaia / Irati I.-Ane  
Ariane-Uxue / A.Nagore-Maddi  
Irati L.-Lide / Garazi-Aiora

**Gazteak:**

Irati-Miriam / Andrea-Irati L.  
Uxue-Andrea / Ainara-Ekhiñe  
Atsedena: Olaia-Izar

**Helduak:**

**19:30ean:** Narrea-Garazi / Yanira-  
Rebeka

**20:15ean:** Laura-Nagore / Maite-  
Saioa

**21:00etan:** Ainhoa-Maddi / Aitzi-  
ber-Ixone

## Aizkora

## Zortzigarrena buruan

NAFARROAKO TXAPELDUNAK ABENDUAREN 8AN JOKATUKO DEN EUSKAL HERRIKO TXAPELA DU ORAIN JOMUGA

Nafarroako Lehen Mailako Aizkora  
Txapelketa:

1.	Floren Nazabal	28:03.37
2.	Jon Rekondo	32:12.04
3.	Juanjo L. Azpilikueta	33:13.17
4.	Ruben Saralegi	35:23.61
5.	Antonio Senosiain	39:43.12

Floren Nazabalek beste behin  
berretsi du gainontzeko aizkolariak  
baino koska bat gehiagora dagoe-  
la. Aurreko ostiralean, Donezteben,  
merezimendu osoz lortu zuen Nafa-  
rroako txapela janztea, bere zortzi-  
garren txapela, hain zuzen, alde izu-  
garriarekin: 4 minutu eta 9 segun-  
do atera zizkion Jon Rekondori.  
Zorionez, oraindik tarte luzerako  
dugu Nazabal.

## Hasieratik aurrean

Nazabalek, Rekondok, Lopez Azpi-  
likuetak, Saralegik eta Senosiain-  
ek lau kanaerdiko, lau 60 ontzako  
eta bioinbiko erdibitzeko lanazuten  
aurrez-aurre. Etxarriarrazen fabo-  
rito argia eta ez zuen huts egin.  
Lehen enborretik jarri zen aurre-  
tik, lanak aurrera joan ahala gai-  
nontzekoekin zuen alde handiagoa  
zela. Ikusgarria izan zen etxarri-  
arra lanean ikusteak, eta nagusitasun



## Larunbatean Lakuntzan

J. C. IRIGOIEN

Bihar Lakuntzako Pertza elkarte-  
ak bazkidearen egunerako antola-  
tutako enborrean, aizkora proba

jokatuko dute Floren Nazabalek  
eta Juanjo Lopez Azpilikueta, Behar  
Zana pilotalekuan, 18:00etan.

osoz gailendu zen (28:08). Irabazlea  
nor izango zen argi zegoenez, biga-

rren posturako emozio gehiagoez  
zen. Hor Lopez Azpilikueta eta Jon

## Kiroldegia

Nire seme-alabak kirola egitea  
nahi dut, baina... zenbat? Zertarako?

Abenduaren 13an hitzaldia antolatu  
du Manek. Izena ematea zabalik  
dago.

Sakanako Mankomunitateak kirol  
balioei buruzko hitzaldia antolatu  
du, kirol jardueretako arduradun,  
begirale eta gurasoei begira. Nire  
seme-alabak kirola egitea nahi dut,  
baina... zenbat? nola? zertarako?  
izenburupean eskainiko da hitzal-  
dia, abenduaren 13an, 18:30ean (eus-  
karaz) eta 19:30ean (gaztelaniaz),

Altsasuko Iortia Kultur Gunean.

Inskripzioa abenduaren 4ra  
arte zabalik

Izena emateko epea abenduaren 4an  
bukatu da. Izena emateko deitu  
Mank-eko Kirol Zerbitzura (948 464  
866 edo kirolak@sakana-  
mank.com). Hizkuntza batean edo  
bestean hitzaldia antolatze-  
ko gutxienez 15 partaide eman behar-  
ko dute izena bakoitzean.

**PPSOE,  
ETB  
digitala  
Nafarroan  
orain!**

**Berria erosi taldea**

**GANUZA  
SUKALDEAK**  
Sukalderako altzariak

Bainu gelako altzariak  
Horma armairuak  
Etxetresna elektrikoak

Tel.: 948 460 203 Fax: 948 460 673  
c.ganuzas@cocinasganuzas.com  
www.cocinasganuzas.com  
Etxarriko industrialdea  
ETXARRI ARANATZ

## Txirrindularitza

Urteko errepassoa egingen du bihar  
Burunda Txirrindularitza Klubak

Larunbatean, 17:45ean, Iortia Kultur  
Gunean

Burunda Txirrindularitza Klubari  
iritsi zaio urteko balantzea egi-  
teko ordua. Horretarako, klubak  
asanblada orokorra deitu du larun-  
batean, hilaren 23an, Altsasuko  
Iortia Kultur Gunean, 17:45ean. Gai  
ordenari jarraiki, aurreko aktaren  
irakurketa eta onarpena egingen  
dute lehenik, segidan diru kontuen  
egoeraz aritzeko. Jarraian, denbo-

raldian txirrindularitza klubak  
egindako lana errepassatu dute:  
lortutako emaitzak, helburuak  
bete diren ala ez.

## Trofeo banaketa


Bukatzeke, urtero moduan denbo-  
raldi bukaerako trofeoak banatu-  
ko dizkiete txirrindulariei. Jakina,  
galde erreguen txandan nahi duten  
galderak egiteko aukera izango  
dute Burundako bazkideek.

**BILTOKI**  
TABERNA • JATETXEA

**ONDDO  
ASTE**

Azaroaren  
21etik 24ra

948 467 876 • Altsasu



**LARRAZA  
ARDOAK**

Tel.: 948 460 014

Zugarreta 2  
Etxarri-Aranatz

Pilota

# Horren gertu...

EZKURDIAK ESKURA IZAN ZUEN GARAIPENA BAINA IRUJO PASA DA LAU T´ERDIETAKO FINALERDIETARA, 22-21 IRABAZITA

Labrit pilotalekuan bukaerara arte sekulako emozioa izan zen larunbatean. Ezkurdia edo Irujo, nork aurrera? Margarita bati hosoak kentzean bezala, bazirudien orain Ezkurdia gailenduko zela, gero Irujo, segidan Ezkurdia... Azken tantora arte irauin zuen ezjakintasunak, partidari barna inorez zelako argi gailendu. Azkenean, Irujo ariko da lau t´erdiko finalerdietan, Ezkurdiari tanto bakar batengatik irabazi eta gero. Arbizuko aurrelariak agur esan behar izan dio lau t´erdiari, baina burua tente, txapelketa bikaina egin baitu. Behe-behetik hasita gora egin du, finalerdietarako sailkatzeaz geratu dela. Ibilbide horretan txapelketako sentsazioetako bat izan da.

Irujo ez zen lasai kantxaratu. Eskuin hatzeko hatz erakuslean pitzadura du eta nahiz eta ongi babestu mina ematen dio eta bere jokoa erabat baldintzatzen du. Beldurrez ematen zion pilotari, bete-betean joko balu hatza lehertuko ote zitzaion beldurrez. Eta, bestetik, Ezkurdia zuen aurrean, bere entrenamendu kidea, sarritan berarekin sparring lanak egiten dituen eta txapelketa bikaina egiten ari dena. Maisua eta ikaslea, elkar primeran ezagutzen dutenak, norberaren indarguneak eta ahulleziak zein diren argi dakizkitenak. Pilota aukeraketen loreak bati eta besteari. "Arbizukoaren jokoa eta Irujoaren arazoak ikusita, parean ikusten dut partida"



Garaipena lortzeko izugarri sufritu behar izan zuen Irujo. Pena Ezkurdiarengatik, Aimarren kontra bezala partida azken unean galtzen utzi zuelako, finalerdia ia eskuan zuenean. Baina txapelketa bikaina egin eta gero burua tente egon daiteke arbizuarra. "Eskuetatik ihes egin dit. Pena ikaragarriarekin noa etxera; ikasteko balioko dit" zioen Josebak partida bukaeran.

da" adierazi zuen Aspeko kirol zuzendari Etxanizek pilota aukeraketan, eta horrela izan zen.

Ezkurdiak egin zituen lehen 5 tantoak, horietatik 3 sakez. Sakea berreskuratutakoan beste 5 tanto egin zituen jarraian Irujok, 2 sakez. Eta egoera hori errepikatu egin zen partidanzehar. Jokoari dagokionez partida nahiko eskasa izan zen, bi pilotari huts asko egin zutelako eta piloteo gutxi izan zelako.

**Eromena**

Irujo izan zen aurretik partida ia guztian barna, baina Ezkurdia oso gertu zuela. 17-15 aurreratuz

Irujo eta bazirudien hortik aurrera 22 tantora zuzenean zihoala, baina falta egin zuen sakez eta Ezkurdiak egoera primeran aprobetxatu zuen 17-19 aurreratzeko. Partida irabaztea eskura zuen arbizuarrak baina huts egin zuen, eta Irujo 20-19 aurreratu zen. Hurrengo tantoan polemika izan zen, Ezkurdiak txapara bidalitako pilota ontzat eman zuelako epaileak, eta hurrengo tantoa sakez irabazi zuen ezkurdiak, 20-21 aurreratu. Finalerdia esku-eskura zituenean Irujo azaldu zen, maisua, eta kontra zuen lehia irabazi zuen bi tanto egin eta gero.

... baina eskutik ihes egin zion



NAFARROAKO GAZTE MAILAKO PILOTA TXAPELKETA

## Joanes Bakaikoa, txapeldunordea

Oso lehia estuan 18-13 irabazi zion Xabier Mateok

Larunbatean 27. Nafar Kirol Jolasetako Nafarroako Gazte Mailako Buruz Buruko finala jokatu zen Iruñeko Labrit pilotalekuan. Erreka taldean dabilen Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta San Migel taldeko Lizarrako Xabier Mateok lehia estua izan zuten finalean, eta, azkenik Mateo gailendu zitzaion Bakaikoari, 18-13.

**Partida bikaina eta estua**

Partida hasita 5-0 aurreratu zuen Mateo, baina hurrengo tantoak txapan bukatu zuen. Sakea berreskuratuzuen konfiantza hartu zuen etxarriarrak eta markagailua irauli zuen, 5-7 aurreratu. Sake zitalak, dekadak eta beste baliatu zituen horretarako. Baina Mateok sakea berreskuratuzuen, Bakaikoaren sakea airez erantzuterakoan, eta partida dominatzen hasi zen Lizarrakoa. Bakaikoak ongi erantzun



Joanes Bakaikoa, Xabier Mateo txapeldunarekin sari ematean. UTZITAKOIA

zuen Mateoren erasoei eta bi pilotarien arteko lehia oso estua izan zen, baina Lizarrakoak distantzia handia hartu zuen, 15-8. Bakaikoak atzera ere erantzun egin zuen eta distantziak gutxitu zituen, 15-13 hurbilduz, baina ez zen nahikoa

izan, Mateok sakea berreskuratuz eta 18-13 irabazi baitzuen.

Etxarriarrak ez zuen txapela ekarri, baina partida bikaina egin zuen. Nafarroako gazteen mailako txapeldunorde berria dugu eta etorkizun oparoa.



NAFARROAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

### Irurtzunek eta Oberenak finalerdiak jokoan Lakuntzan

Larunbatean, 16:00etan, Lakuntzako Behar Zana pilotalekuan

Nafarroako Kluben Arteko Pilota Txapelketako Lehenengo Mailako hasierako ligaxka jokatzeko ari da. Asteburuan 6. jardunaldia jokatu zen eta Irurtzunek Txaruta hartu zuen menpean. Banakakoan Armendarizek 18-10 irabazi zion Zarantoni, txapelketako bere 4. garaipena lortuz, eta binaka Ezkurdiak eta Mitxelenak 10 tantotan utzi zituzten Arraztoa-Otxandorena.

Asteburuan hasierako ligaxkako 7. eta azken jardunaldia jokatuko da. Lehen mailan, Irurtzun eta Oberena larunbatean lehiatuko dira Lakuntzan, 16:00etan, Lakuntzako Pertza elkarterako bazkidearen egunaren harira antolatutako ekitaldian. Norgehiagoka erabakigarria izango da, finalista izateko lehiatuko baitira bi taldeak.

### Nafarroako Kluben Arteko Pilota Txapelketa

**Lehen maila**

Irurtzun vs Oberena

Banaka: Armendariz (Irurtzun)

- Garcia (Oberena)

Ongay-Mitxelena (Irurtzun) -

Diaz-Iturriaga (Oberena)

**Triatloia**

### Leire Maiza Nafarroako Triatloi Galan saritua

Igandean Nafarroako Triatloi Federazioak 2013ko Gala ospatu zuen San Juan kirol elkarterean. Bertan 2012-2013 denboraldiko triatleta onenak saritu ziren. Tartean, Sakana Triatloi Taldeko Leire Maiza Razkin etxarriarrak kimuen emakumeen mailako bigarren triatleta onenaren saria jaso zuen.

**BENJUMEA BIGARRENA LANZAROTEN**

Urriar IV. Ocean Lava Lanzarote Triathlon proba jokatu zen Lanzaroten. Laugarren Distantzia izeneko proban 200 triatleta baino gehiago aritu ziren (950 m igerian, 45 km bizikletan eta 10 km korrikan). Bob Hallerrek irabazi zuen eta bigarren postuan sailkatu zuen Sakana Triatloi Taldeko Felix Benjumea altsasuarra.



**Futbola**

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

13. JARDUNALDIA

**LAGUN ARTEA 3 - ERRI-BERRI 1**  
Bi taldeak puntuen faltan zeuden, baina azkenean, merezimendu osoz, Lagun Arteak 3-1 irabazi zion Erri-Berriri, etxean. Sufritzea tokatu zitzaion Laguni, 25. minutuan Erri-Berri aurreratu zelako. Baina 2. zatian, eta Arratibelek gidatuta, lakuntzarrek buelta eman zioten egoerari. Unai Bakaikoak, Morillasek eta Jonathanek zulatatu zuten Erri-Berriko atea. Orain taularen gune lasaian dago Lagun Artea.

Sailkapena >>

- 1. San Juan ..... 29 p
- 13. Lagun Artea ..... 15 p

Asteburuko jardunaldia

**BURLADES - LAGUN ARTEA**  
(Larunbatean, 16:00etan, Ripagainan)

**ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa**

10. JARDUNALDIA

**ALTSASU 0 - KIROL SPORT 0**  
**EGUESIBAR 3 - ETXARRI ARANATZ 2**  
**SAN JORGE 1 - LAGUN ARTEA B 2**  
Dantzalekun, behin eta berriz garaipena lortzen saiatu zen Altsasu eta nahiz eta jokaldi ugari sortu, balaioa ez zen kontrako atean sartu. Gainera, gol bat baliogabetu zioten Altsasuri. Nahiz eta garaipena merezi, puntu batekin konformatu behar izan zen Altsasu eta sailkapenean 2.a da. Etxarri Aranatz, aldiz, punturik gabe itzuli zen Sarrigurenetik. Mikelek Etxarri aurreratu zuen eta Pablok Etxarriren 2. gola sartu zuen, penaltzi. Baina Eguesibarrek egoerari buelta eman zion, 3 gol sartuz. Eta, bukatzeko, San Jorgeri 1-2 irabazi zion Lagun Artea B-k.

Asteburuan derbya jokatuko da Sakanan. Etxarri Aranatzek Altsasu hartuko du San Donato futbol zelaietan. Altsasuk lidergoa du jokoan eta Etxarri Aranatz puntu faltan dago, azkenaurreko postua atzean uzteko.

Sailkapena >>

- 1. Beti Kozkor ..... 22 p
- 2. Altsasu ..... 22 p
- 11. Lagun Artea B ..... 12 p
- 15. Etxarri Aranatz ..... 7 p

Asteburuko jardunaldia

**ETXARRI ARANATZ - ALTSASU**  
(Larunbatean, 15:30ean, Etxarri Aranatz)

**LAGUN ARTEA B - ERROTXAPEA**  
(Larunbatean, 16:00etan, Berriozarren)

**Futbola**



**SAKANAKO FUTBOL 8 TXAPELKETA**

### 5. jardunaldia jokoan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, martxan da Kimuen Futbol 8 Topaketa. Aipatu topaketa txapelketa moduan jokatzen ari da eta asteburuan joaneko 4. jardunaldia jokatu zen. Igandean 5. jardunaldia hartuko du Altsasuko Dantzalekuk.

**5. jardunaldia**

**Igandean, Altsasuko Dantzalekun**

**11:30etik 12:30era:** Arbizu K.T. - Dantzaleku

**12:30etik 13:30era:** Urdiain - Tipi Tapa

**11:30etik 12:30era:** Etxarri Aranatz - Kaixo

**12:30etik 13:30era:** Txartel - Sayas  
**Atsedena:** Lagun Artea

## Saskibaloia

Altsasuko  
CBASK lanean

Altsasuko Saskibaloitaldeak (CBASK) hasi du denboraldia. Altsasuko Saskibaloitaldeko 5 talde ari dira lehian, ondoko kategorietan: emakumezkoen senior mailan, emakumezkoen junior mailan, gizonezkoen kadete-mailan, emakumezkoen haurren mailan eta gizonezkoen minibasket mistoan. Bestalde, Irurtzungo klubak talde bat du lehian emakumezkoen minibasket mistoen mailan.

Emakumezkoen senior mailako 2. maila autonomikoan Altsasu CBASK SF taldeari 41-71 irabazi zion Gazte Berriak Verde taldeak. Gazte Berriak Blanco taldea da liderra (12+6) eta Altsasu CBASK 9.a da (5-5). Larunbatean Liceo Monjardin taldearen kontra ariko da CBASK (20:00etan). Aldiz, gizonezkoen kadeteen lehen mailan CBASK taldeari 65-67 irabazi zion Larraona A-k. San Cernin da liderra (10+5) eta CBASK 9.a da (5-5). Asteburuan San Cerninen kontra jokatu du Altsasuko (12:10ean).



Topaketako partida bat.

## SAKANAKO

## I. SASKIBALOI TOPAKETAK

## Topaketa Etxarrira

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloitopaketak antolatu ditu. Aipatu topaketetan premiari mailako taldeak lehiatzen dira, 8 urtetik 10 urterabarterteko neska-mutikoak. Lehen jardunaldia Altsasuko Zelandi kiroldegian jokatu zuten eta bigarrena Etxarri Aranzko San Donato ikastetxeako pilotalekuak hartuko du, igandean, azaroaren 24an. Helburua saskibaloia sustatzea da eta Sakanako talde eta neska-mutikoen arteko harremana bulkatzea. Ez da txapelketa lehiakorra, eta horregatik ez da sailkapenik egingen.

## 2. jardunaldia

**Azaroak 24, igandea, Etxarri Aranzko San Donato ikastetxea**

**11:00etan:** Balankaleku - Putterri

**12:00etan:** Martinsasti - Beriain

## Motoziklismoa

Alex, oraindik  
posible da

MARIÑELARENAK ESPAINIAKO ABIADURA TXAPELKETA IRABAZTEKO AUKE-  
RAK BADITU. AZKEN LASTERKETA IGANDEAN JOKATUKO DU, JEREZEN

## Espainiako Abiadura Txapelketa. Moto 2

1.	Roman Ramos	162 puntu
2.	Alex Mariñelarena	142 puntu
3.	Hafizh Syahrin	135 puntu

Alex Mariñelarenak (Targobank Motorsport, Kalex) Espainiako Abiadura Txapelketako (CEV) Moto 2an txapeldun izateko aukerak dauzka oraindik. Igandean txapelketako azken aurreko proba jokatu zen Chesten eta nahiz eta ezkerreko besoa osatu gabe izan -gogoratu Japonian eskumuturra apurtu zuela-, helmugan bigarrena izan zen Alex, Hafizh Syahrin (Kalex) malasiarraren atzetik eta Roman Ramos (Ariane) liderraren aurretik. Liderrarekin duen alde 4 puntutan murriztu zuen irurtzundarrak, eta igandean Jerezen jokatu den azken lasterketan oraindik aukerak badauzka.

## Lasterketa bikaina

Mariñelarenak ostiralean ezin izan zuen entrenatu eta larunbatean entrenatu zuen lehenengoz, zorua bustia zegoela, eta horregatik

motorra puntuan jartzeko denbora gutxi izan zuen. Moto 2ko lasterketan 4. postutik ateratzen irurtzundarra. Hasieran Hafizh Syahrin malaiarrak eta Roman Ramos kantabriarrak hartu zuten aurrea, Mariñelarena gertu zutela. Baina azken 5 itzulitan lasterketa erotu egin zen eta Syahrin, Ramos eta Mariñelarenaren lehia oso estua izan zen. Azken itzulian hainbat aurreratze izan dira, emozioa pil-pilean zela, eta azkenean Syahrin izan da lehena, Mariñelarena gertu zuela. Ramosek osatu du podiuma. "Ez naiz oso ongi ateratzen eta lehen bihurgunean 7. postuan nengo. Kosta egin zait Hafizh eta Romanekin batzea. Bukaeran, garaipenak gutxiatik egin digu ihes eta alde horretatik pena pixkat ematen du bigarrena izateak. Ostiralean ez genekien lasterketa bukatzeko gai izango ote nintzen, lesioagatik, baina kontentua gaudela lortutakoarekin: txapelketan 4 puntuko alde kendu diogu Romani eta Jerezera oraindik ere txapelketa irabazteko aukerarekin iri-

## Areto futbola

## FUTSAL SAKANA TXAPELKETA

Racing San Migel,  
Arbizu eta  
Auzomotojorik lider,  
berdinduta

Futsal Sakana 2013-2014 areto futbolk txapelketan 4. jardunaldia jokatu da eta gauzak nahiko paretsu daude. Auzomotojorik taldeak atseden izan zuen eta Arbizuk eta Racing San Migelek irabazi zuten, orain aipatu hiru taldeak daude goian, bederatzina punturekin, gol avera-gea dela eta Racing San Migel buru da. Bil Toki 4.a da (6 puntu), Bunker 5.a (3 puntu) eta atzetik daude Iturmendi eta Etxarriko Gaztetxiek, punturik gabe. Asteburuan 5. jardunaldia hartuko du Uharte Arakilgo pilotalekuak.

## 4. jardunaldiko emaitzak

Bunker 3 - Racing San Migel 7  
Bil Toki 3 - Etxarriko Gaztetxie 1  
Iturmendi 2 - Arbizu K.T. 6  
Atsedena: Auzomotojorik

## 5. jardunaldia

## Ostiralean, Uharte Arakilen

**20:00etan:** Racing S. Migel - Arbizu

**21:00etan:** Bunker - Bil Toki

**22:00etan:** Auzomotojorik - Iturmendi

**Atsedena:** Etxarriko Gaztetxie



## Airea hartu du Magna Xotak

Azkeneko lau jardunaldiak irabazi gabe egon eta gero, Magna Nafarroa Xotak garaipen garrantzitsua lortu zuen ostiralean Iruñean, Santiago Futsal taldeari 4-3 irabazi eta gero. Arerio gogorra izan zen Santiago, eta horregatik zapore gehiago izan zuen garaipenak. Eskuratutako 3 puntuek haizea eman diote Irurtzungo taldeari. "Hiru puntu hauek ezinbestekoak dira guretzako. Batetik, azken aldiko bolada txar-

rrarekin apurten dutelako eta, bestetik, sekulako morala emango digutela" adierazi du entrenatzaileak.

## Marfil Santa Coloma

Inter Movistar da liderra (28 puntu). Magna Nafarroa Xota 8.a da (15 puntu). Hurrengo partida azaroaren 29an jokatu du Magna Nafarroa Xotak, Arrosadiako pabillioian, 20:30ean, Marfil Santa Colomaren kontra.

## Jerezen erabakiko da



Oraindik lesiotik ez da osatu. "Eskuak enbarazu egiten zidan baina hori ez da lasterketa ez irabazteko aitzakia izan. Hafizhek eta Romanek lasterketa handia egin dute eta zori ondu behar ditugu" gaineratu du Irurtzungo pilotuak. Egun 20 puntuko alde du Ramosekin, baina matematikari erreparatu, oraindik txapeldun izan daiteke Jerezen. "Oso zaila ikusten dut, baina bukaerara arte borrokatuko naiz. Izan ere, lasterketa batean gauza asko gerta daitezke. Jerezen ikusiko dugu elkar!" adierazi du. Hortaz, igandeko Jerezeko lasterketan erabakiko da dena. Ikusmina handia da. Moto 2an, ostiralean entrenamendu libreak izanen dira, 9:00etan eta 12:20ean, larunbatean entrenamendu ofizialak, ordutegi bereberan, eta igandean lasterketa, 12:00etan. Zorte ona opa diogu Alexi.

tsiko gara. Hori zen helburua" adierazi du Mariñelarenak.

## Indarra hartzen

Japoniako Sari Nagusia jokatzeari zela erorikoa izan zuen eta eskumuturra 4 tokitatik hautsi zuen. Lesioa osatzen ari da. "Mundialeko azken proban ezin izan nuen aritu eskumuturrean ez nuelako nahikoa indarrik motorra eusteko ere. Oinaze-

ak ia desagertu dira nahiz eta oraindik eskua guztiz ongi ez nabaritu, baina egun hauetan lortu dudana da indarra irabaztea, motorra egoki eusteko. 4 egun jarrian egin ditut motorrean eta eskumuturra nahiko minduta daukat eta fisioterapeutarekin sesioa egin beharko dut. Baina Jerezeko azken lasterketarako gogo izugarriarekin nago" adierazi digu pilotuak.

Ondarrria industrialdea  
ALTSASU

# Unamuno

Tel. 948 562 829 Faxe 948 563 002

**LARROSEN  
GARAIA!**

**SASI-GARBITZEKO  
MAKINA**

**BEROGAILUENDAKO  
BIOERREGAIA**

**FRUTA-ARBOLEN  
GARAIA BADATOR**

BEHIAK ETA ARDIAK  
JEZTEKO TRESNERIA

CASCOGNE MELOTTE

ABERE INSTALAZIOAK

L'engagement qualité

## Antzerkitik **omenaldia** bakeroen filmi

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. Yllana konpainia

**Y**llana konpainiak publikoguztiarendako umore zuria ekarriko du Altsasura, "besterik gabe, barre egin nahi dutenendako". Far west ikuskizuna bakeroen filmeen errekreazioa da, hasiera eta bukaera duen istorioa. Lau aktore ohol-tza gainean, ikus-entzunezko proiektzioen laguntzaz, bere maitea berreskuratunahi duen anti-heroibaten istorioa kontatuko du.

Ameriketako Estatu Batuetako mendebalde urruneko tren geltoki batean baserriar baketsu eta soil batek andregai jasoko du. Baina lehen musua eman aurretik bilatze eta atxilotze agindua duten bi gaizkile gaiztok bahitu egingen dute emakumea. Bere maitea erreskatatzen saiatuko da baserri-



tarra, horretarako eskura duen guztia erabiliz. Bahiketa bitartean emakumeak bere baitan ezezagunak zitzaizkion balioak opatu ditu eta hala benetako heroina bihurtuko da.

Ikuskizunean western ikonografia xehatu egingen du Yllanak:

jatorrizko amerikarrak, kantineak, desertuak, dueluak, jazarpenak eta akzio asko izanen dira. Lau aktoreak onomatopeia, keinu grazia, soinu efektu eta hiru dimentsiotako animazioaren laguntzaz ikusleen konplizitatea bilatuko dute.

## Blues-country aireak bisitan



Igandean, 19:00etan Irurtzango kultur etxean

**T**he Pink Rangers taldearen kontzertuak itxiko du Folk Ametsetan zikloa. Amerikako Estatu Batuetako herri musikaren eskaintza ekarriko dute Asturiastik Irurtzunerara. Michael Lee Wolfe musikari, ekoizle, konposatzaile eta promotoreak mendebaldeko darama estatuan bizitzen. Asturiasko herri musikari izen entzutetsua da Lee Wol-

ferena. Baina bere sorterriko musika zabaltzen aritu izan da. Lee Wolfe & The Blue Rangers taldearekin abiatu zuen bide hori. Taldean aldaketak izan ziren eta eskarmentu handia zuen hiruko bat sartu zen: Silvia Fernandez, Gemma Fernandez eta Puri Penin. Osaketa aldaketarekin batera etorri zen izen aldaketa, The Pink Rangers. Texas, Chicago, New Orleans edo Allegheny ibaian barnako musika bidaiari izanen da igandekoa.

## bazterretik

Laida Aldaz

### Graffiti gunea

70 garren hamarkadan Philadelphia eta New Yorkeko kaleetako horma eta metro bagoiak, Taki 183, Julio 204, Cat 161 eta Cornbread goitizenez beterik agertzen hasi ziren. Mugimendu artistiko berri baten jaiotzari buruz ari naitzaizue hizketan, graffitiak. Nahiz eta graffitiak, hiriaz jabetzeko modu bezala sortzen den, beranduago adierazpen artistiko gisa garatuko da. Hasiera batean, artistek sinadura moduan erabiltzen zituzten goitizena, margo lan izugarrietan bilakatuko dira denborarekin. Hain beste dira urteekin graffitiaren

inguruan sortu diren teknika desberdinak, non gaur egun street art (kaleko artea) izenez ezagutzen ditugun.

Gizarte protesta modu bat izan da graffitiak betidanik, batzuetan kalea guztiona dela adierazteko, bestetan desadostasuna azaltzeko eta askotan gizarteari kritika zuzena egiteko. Arte mota hau gazteriaren areriotasunaren erreflexu bezala agertu zen, punk kulturarekin batera, gehienetan egoerapolitikoa batakarririkatzeko. Baina 80 garren hamarkadan pop kulturak graffitiak bereganatzen du merkataritza helburuekin, gazteriaren artean duen arrakasta ikusita. Gaur egun, artista

askok hirian zehar margotzen ari-tzeaz gain, oso garesti saltzen diren kuadroak ere egiten dituzte. Zein da street art-aren zentzua obra hauek galerietan erakutsi eta saldu egiten badira? Badu zentzurik graffitiak museotan ala kalean gelditu behar-kolizateke? Nola egon daitezke salgai klandestinitatean lan egiten duten artisten obrak?

Banksy da gaur egun street art artisten artean ezagunenetarikoa. Bere identitatea ezkutatzera eraman dute honen lanak burutzeko legez kanpo eginduen ekintzek. Banksy-ek eztabaida honen inguruan dagoen polemikari erantzuteko Pariseko Louvre museoan (beste batzuetaz

gain) sartu zen eta bere kuadro batzuk itsasi zituen museoko hormetan. Hantxe utzi zituen bere lanak, beste kuadro ezagunen artean, norbaitek Louvrearen parte ez zirela nabaritu arte.

Ekintza honekin Banksy-k artearen inguruan dagoen merkatuari kritika bat egiten dio, zergatik ez dira street art obrak beste artisten lanen aintzat hartzen? Nork erabakitzen du arte lan bat ona ala txarra den? Obra bat besteak baino balio handiagoa edukitzearen arrazoia zein da?

Street art-earen iragankortasuna galdu egiten da kuadro gisan aurkezten dugunean betirako iraun dezan. Bestalde, non gelditzen da graffitiak

bere baitan eraman beharko lukun legez kontrako nabardura museoaren hormen barnean babesturik aurkezten dugunean?

Geroz eta galeria gehiago daude artea mota honetan interesatuta. Orain dela hilabete batzuk Parisen bertan, Poste de Paris museoan 13 street art artista internazionalen obrak aurkeztu ziren, Banksy, Obey eta Space Invader, beste batzuen artean. Street art-a kaleetatik instituziotara mugitzen ari den bitartean eztabaida irekita jarraitzen du. Kalean sortutako lanak galerietan saltzea prostituzio mota bat da? Ala eskubide guztia dute museoetan arte mota hau aurkezteko?

**kattuka**  
haur eskola



**MATRIKULA EPEA: AZAROAREN 25etik 29ra (9:30-16:00)**

- Haur Eskola Publikoen sarea.
- Urtariletik aurrera hasteko (2013/2014 ikasturtean).
- 2013an jaiotako haurrentzat (16 aste eta 12 hilabete bitartean).
- Egutegi eta ordutegi aukera anitzak.
- Hezkuntza proiektu propioa.
- Haur Hezkuntzako profesionalak etengabeko formakuntzan.
- Haurren garapen integrala eta banakako eritmoak aintzat hartzen dituen hezkuntza proiektua.
- Edoskitzearen errespetua.
- Familia eta eskolaren arteko harremanen sendotasuna.

Informazioa: kattukahureskola@gmail.com · 948 567 009 · Etorri Kattuka Haur Eskola ezagutzera!

# Euskaraz irakurtzeak saria du Etxarrin

Ostiralaz geroztik martxan da Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) kanpaina, ilbeltzaren 15era arte martxan dena

## Gazteendako lehiaketa

IGO kanpaina martxandean bitartean, euskal literaturaren inguruko 10 galderari zuzen erantzunez gero, e-book baten zozketan sartuko dira.

Victoriano Huizi udal liburutegian euskarazko liburuen irakurketa sustatzeko kanpaina martxan jarri da. Helburuak bi dira. Batetik, gazte eta heldu berriak euskarazko liburuen irakurketara erakartzea. Bestetik, ohiko irakurle euskalduna saritunahi da. Liburutegiaren eta udalaren elkarlanetik jarri da martxan Irakurri, Gozatu eta Oparitu kanpaina. Aurten bigarren urtea da.

Bai batzuek bai besteek aukeratutako liburua irakurri ondoren fitxa bat bete beharko dute. Liburuzainak trukean deskontu txartel bat emanen die Etxarri Aranazko liburu-dendetan eros dezaten. 12 eta 16 urte bitarteko gazteek liburuak edo eskola materiala erosteko aukera izanen dute. Helduek, berriz, %25eko deskon-



tua izanen dute liburu baten erosketan. Mintzakide programan parte hartzen edo euskara ikasten ari direnek, ordea, liburuak prezio erdian eskuratzeko aukera izanen dute.



## Haur literaturak ezarritako mito, klixe eta dogma matxistei errepeaso

Gaur, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean. Oihulari klown

Pauxa *Encantadas* antzezlaneko protagonista da. Pauxa Loti Ederra dela sinetsita dago. Baina 700 urtetik gorako loaldi sakon, luze eta alfer baten ondoren, printze urdinaren zain egoteaz nazkatuta bere kabuz

esnatzea erabakitzen du. Bere onera etorrita, Pauxak haur literaturak haur literaturak ezarritako mito, klixe eta dogma matxisten aurka gurutzada hasiko du, hainbat ipuinetako protagonisten jokabidea eta jarrerak hizpide bihurtuz.

Pauxak, Virginia Imazek, zenbait estereotipo femininori buel-

ta ematen die antzezlan horretan. Haur literaturako ipuin tradizionalak balio positiboak dituztela onartuta ere, obraren sortzaile den Imazek ikuskizunarekin kritika soziala egin nahi du. Hala, fantasiako pertsonaien bizipenak benetako egoerekin parekatzeko aukera sortzen da, eta hausnartarako bidea ematen du.



## Erkudengo Ama abesbatza, Los Arcosera

Bideko Abesbatzen Zikloan parte hartuko du bihar Altsasuko Erkudengo Ama abesbatzak. Donejakue bidea duela 25 urte izendatu zuten Europako Kultura Ibilbide. Horregatik, Nafarroako Gobernuak udazkenerako kontzertu zikloa antolatu du Nafarroako Abesbatzen Federazioarekin elkarlanean. Ziklo horren barruan ariko dira altsasuarrak Los Arcosen kantari.

### Programa

Cherubing song	D. Borniansky
Si tú no estás aquí	Rosana (Mold. J. Domínguez)
A tu lado	J. Busto
Adiós	L. Arambarri
Malaika	Herrikoia: Tanzania
Shenanndoah	J. Erb
Swing low	Espiritual Negro
Soon a will be done	W.L. Dawson
Matalaz	Herrikoia. (Mold. L. Ondarra)
Baldorba	B. Lertxundi
Oi ama eskual herria	B. Lertxundi
Erribera	B. Lertxundi
Ama birjiña erkudengoa	Herrikoia. (Mold. L. Ondarra)



## Antzele euskaldunendako gonbitea

Aberriaren 13an edo 14an Berriozarrek Euskal Herriko Antzerkizale Eguna hartuko du. Hitzorduak bi helburu ditu. Aurrena, euskal antzerkigintza sustatzea da. Bigarrena, antzerki arloan dabilzkan Nafarroan euskal antzerkigintza bultzatzeko egin dezaketenen inguruan hausnartzea edota erabakiak hartzea. Antolatzaileek antzele euskaldunak topaketan parte hartzera gonbidatu dituzte.

**Oroigarriak**

**Guaixe KOMUNIKAZIOA**

948 564 275

**FAR WEST** AZAROAK 23 20:00 Antzerkia

**HERENSUDCACK** (Haritzaren bihotza) 3€

**HARITZAREN BIHOTZA** IGANDEA 24 17:00

**BESTIAS DEL SUR SALVAJE** 5€ OSTIRALA 22 21:45 IGANDEA 24 20:00

**LA BICICLETA VERDE** 5€ OSTIRALA 22 22:00 IGANDEA 24 20:10

iortikultura.com

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 93%	euria: 68%	euria: 45%	euria: 35%	euria: 20%	euria: 15%	euria: 18%
Min: 1 Max: 4	Min: 1 Max: 4	Min: 2 Max: 4	Min: 2 Max: 4	Min: 0 Max: 3	Min: -2 Max: 5	Min: -1 Max: 7

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	10.5	0.5	82.8
Etxarri A.	10.2	0	129.7
Altsasu	9.5	0.5	170
Aralar			
Urbasa	8	-2	105.9

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
25	3	9	17

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

# KOLOREA

GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253

Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI

Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

www.ventanasegoki.com

beleixe guaixea

Azaroko bazkide zozketa

**AZAROKO SARIAK:**

1- KUKUXUMUXU MAINDIRE LOTE BAT + 2 SARRERA EKAINBERRI + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

2- PIRRI TX ETA PORRO TX SUDADERA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUS-

TEKO 2 SARRERA

3- SUKALDEKO LACTURALE ZAPIA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA

4- LIBURU LOTEA + LACTURALE ZENTRORAKO BI SARRERA + XOTA IKUSTEKO 2 SARRERA



## Eguberriko postal pertsonalizatuak

eska ezazu zure logoarekin!

**Orri bakarrekoak**

50 ale 55 €

100 ale 65 €

150 ale 75 €

**Diptikoak**

50 ale 77 €

100 ale 113 €

150 ale 142 €

Hainbat diseinu aukeran. Eskatu aurrekontua.

948 564 275 [argi@guaixes.net](mailto:argi@guaixes.net)

[guaixekomunikazioa.blogspot.com/es/](http://guaixekomunikazioa.blogspot.com/es/)

# >> 11 galdera

### Uxue Goñi

Gertu Sakana denda

Testua: Eneida Carreño eta Mainer Betelu

**4. Zenbat denbora darama zabalik dendak?**

Urte eta erdi pasa. Nik urte erdia daramat, baina gainerako sozioak lehenago hasi ziren lanean.

**5. Kooperatiba bat sortu duzue.**

Bai, 6 langileok osatzen dugu kooperatiba eta seiak gara kooperatibistak. Ni Berriozarkoa naiz, baina beste bostak altsasuarrak. Lanbide Heziketako ikasketak egin ondoren praktikak egitera sartu nintzen eta geroztik hemen nabil lanean. Kooperatibak ona duena da langileen aldera begiratzeko duela. Langileen inplikazioa behar du eta alde horretatik kooperatiban egotea polita da.

**6. Sakanatik kanpo ere lan egiten duzue, ezta?**

Bai. Denda izateaz gain, furgoneta batekin gabiltza herriz herri gure produktuak saltzen. Goizeko, astelehenetik ostiralera, bazkide batek Araba aldean ibilbidea egiten du. Materiala eramaten dugu, burdindegietako oinarritzko materiala, herrietan barna saltzeko. Eta, horretaz gain, herritarren eskaerak eta enkarguak hartzen ditugu eta hurrengo astean eramaten diegu eskatutakoa. Herri askotan eskaerakin funtzionatzen dugu. Herri tarrek asko eskertzen digute, eta gure produktuak etxetara eramatea beti plus bat da guretzat. Orain, beste lankide bat hasi da arratsaldetan Ameskoa aldetik eta Urbasa pasatu ondorengo herrietan barna pasatzen. Ibilbi-

de hau errentagarria izan daitekeen aztertzen ari gara.

**7. Zein dira gehien saltzen dituzuen produktuak?**

Burdindegian gehienbat pilak, Loctiteak, bonbilak eta halakoak. Eta herrietan gehienbat zartaginak eta halakoak saltzen dira, sukaldeko tresnak.

**8. Krisi garaian enpresa bat sortzea ez da erraza izango.**

Nire ustez, krisia zentzu baikorretik hartzea inportantea da. Nahiz eta denok jakitun izan krisia dagoela, uste dut momentu ona dela Sakanan gure zerbitzua irekitzeko. Eapoliki-poliki aurreragoazen.

**9. Nola ikusten duzu Gertu Sakanaren etorkizuna?**

Mantso-mantso bagoaz eta hazten ari gara. Ea handitzen jarraitu dezakegun! Horiek dira asmoak.

**10. Beleixe-guaxie txartelan sartzeko pausua eman duzue, jendeak Sakanan erosi dezala eta hemen inbertitu dezagun bulkatzeko.**

Bai. Bierrik fundazioko bazkideek dute Beleixeguaxie txartela, eta txartela dutenei zer onura eskainiko diegun pentsatzen ari gara. Litekeena da sukaldeko tresnerian edo halakoren batean deskonturen bat egitea.

**11. Zorte on!**

Eskerrik asko. Denak animatzen zaituztegu Gertu Sakanatik pasatzera!